

PSIKOMOTRIZITATE SAIOAK HAUR HEZKUNTZAN

Covid 19 aurreko eta ondorengo saioen konparaketa

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Martínez Dorado, Marta.

ZUZENDARIA: Bastarrica Varela, Olatz.

2020-2021

Laburpena

Euskeraz:

Gradu Amaierako lan honetan, pandemia egoeran psikomotrizitate saioak Haur Hezkuntzan nolakoak diren aztertu eta ikertu da. Horrez gain, lehenengo saioei buruzko informazioa ere lortu da eta aurreko eta oraingo egoera konparatu da. Baita haurraren garapena hobetze aldera, zenbait proposamen ere eman dira etapa honetako irakasleek kontuan izan ditzaten. Aurten, laugarren mailan, Gasteizen dagoen eta itunpekoa den, Santa Maria Marianistas Ikastetxean egin ditut praktikak eta bertan behatu diren 4 saio lan honetarako erabili dira. Koronabirusa baino lehen behatutako 4 saioak ere bigarren hiruhilekoak ziren, eta kasu bakoitzean, lortutako informazioarekin taula bat bete da. Tarte horretan, 5 urteko gela batean egon nintzen, guztira, 24 ume zeuden, eta gelan irakaslea eta ni geunden.

Bestalde, lan honek autore batzuek, horien artean, Bernard Aucouturier praktika psikomotorren sortzailea dena aurkitzen da, psikomotrizitatearen inguruan eman dituzten iritzi ezberdin ugari biltzen ditu. Gainera, esaterako, psikomotrizitatearen helburuak zeintzuk diren, zergatik bizitzako lehen urteetan jolasa den hain garrantzitsua eta hainbat autoreek saioak aurrera eramateko proposatzen dituzten urratsak ere ezagutarazten dira. Baita irakaslearen papera zein den eta horrek izan behar duen jarrera ere. Lortutako informazioa autoreek proposatzen dutenarekin ere alderatu da eta amaieran, ateratako ondorio ezberdinak eta interesgarriak txertatu dira. Gogo handiz egin den lan hau Haur Hezkuntzako Gradua egiten ari diren ikasleei, etapa honetako irakasleei eta orokorrean, psikomotrizitatea interesatzen zaion orori zuzendua dago.

Hitz gakoak: psikomotrizitatea, Haur Hezkuntza, Bernard Aucouturier, Covid-19, jolasa, hobekuntza proposamenak.

Gazteleraz:

En el presente Trabajo de Fin de Grado, se ha analizado e investigado cómo son en la pandemia las sesiones de psicomotricidad en Educación Infantil. Además de eso, se ha obtenido también información sobre las sesiones de antes y se ha comparado la situación de antes y la de ahora. También, para mejorar la práctica psicomotriz, se han hecho varias propuestas para que los profesores y profesoras de esta etapa las tengan en cuenta. Este año, en cuarto de carrera, he realizado las prácticas en el colegio Santa María Marianistas, que se encuentra en Vitoria y es concertado, y las 4 sesiones que se han observado en

dicho lugar se han utilizado para este trabajo. Las 4 sesiones observadas antes del coronavirus también fueron en el segundo cuatrimestre, y en cada caso, con la información obtenida se ha rellenado una tabla. Durante ese tiempo, estuve en una clase de 5 años, en total, había 24 niños y niñas, y en el aula estábamos la tutora y yo.

Por otro lado, este trabajo recoge las muchas opiniones diferentes que algunos autores y autoras han dado sobre la psicomotricidad, entre ellos, se encuentra Bernard Aucouturier, creador de la práctica psicomotriz. Además, por ejemplo, también se dan a conocer cuáles son los objetivos de la psicomotricidad, por qué el juego es tan importante en los primeros años de vida y las fases que algunos autores y autoras proponen para llevar a cabo las sesiones de psicomotricidad. También, cuál es el papel del maestro o maestra y ambos qué actitud tienen que tener. La información obtenida se ha contrastado con lo que proponen los autores y autoras y al final, se ha llegado a conclusiones diferentes e interesantes. Este trabajo, realizado con mucho entusiasmo, está dirigido a los alumnos/alumnas que estén cursando este grado, a los profesores/profesoras de esta etapa, y en general, a cualquier persona que le interese la psicomotricidad.

Palabras clave: psicomotricidad, Educación Infantil, Bernard Aucouturier, Covid-19, juego, propuestas de mejora.

Ingelesez:

In this final degree work, we have analysed and investigated what the psychomotricity sessions in early childhood education are like in the pandemic. In addition to this, information has also been obtained about the sessions before and a comparison has been made between the situation before and now. Also, in order to improve psychomotor practice, several proposals have been made for teachers at this stage to take into account. This year, in the fourth year of my degree, I did my work experience at the Santa María Marianistas school, which is in Vitoria and is a state-subsidised school, and the 4 sessions observed there were used for this work. The 4 sessions observed before the coronavirus were also in the second term, and in each case, a table was filled in with the information obtained. During that time, I was in a class of 5 year olds, there were 24 children in total, and the tutor and I were in the classroom.

On the other hand, this work collects the many different opinions that some authors have given about psychomotricity, among them, Bernard Aucouturier, creator of the psychomotor practice. In addition, for example, the objectives of psychomotricity, why play is so important in the first years of life and the phases that some authors propose for carrying

out psychomotricity sessions are also explained. Also, what is the role of the teacher and what attitude they should have. The information obtained has been contrasted with what the authors propose and, in the end, different and interesting conclusions have been reached. This work, carried out with great enthusiasm, is aimed at students who are studying this degree, teachers of this stage, and in general, anyone who is interested in psychomotricity.

Key words: psychomotricity, early childhood education, Bernard Aucouturier, Covid-19, play, proposals for improvement.

AURKIBIDEA

| | |
|--|--------------|
| 1. Sarrera | 5 |
| 2. Justifikazioa | 5-6 |
| 3. Testuingurua | 6 |
| 4. Ikastetxeko metodologia | 6-7 |
| 5. Marko teorikoa | 7-20 |
| 5.1. Psikomotrizitatea..... | 7-9 |
| 5.2. Psikomotrizitatearen helburuak..... | 9-10 |
| 5.3. Jolasaren garrantzia..... | 10-11 |
| 5.4. Saioaren egitura..... | 12-16 |
| 5.5. Materiala..... | 16-17 |
| 5.6. Espazioa eta denbora..... | 17-18 |
| 5.7. Psikomotrizistaren papera..... | 19-20 |
| 6. Helburuak | 20-21 |
| 7. Metodologia | 21 |
| 8. Saioak | 22-28 |
| 8.1. Lehenengo saioa Covid-19 aurretik..... | 22-24 |
| 8.2. Bigarren saioa Covid-19 aurretik..... | 24 |
| 8.3. Hirugarren saioa Covid-19 aurretik..... | 24 |
| 8.4. Laugarren saioa Covid-19 aurretik..... | 25 |
| 8.5. Bosgarren saioa Covid-19a ondoren..... | 25-27 |
| 8.6. Seigarren saioa Covid-19a ondoren..... | 27 |
| 8.7. Zazpigarren saioa Covid-19a ondoren..... | 27-28 |
| 8.8. Zortzigarren saioa Covid-19a ondoren..... | 28 |
| 9. Konparaketa | 29-33 |
| 10. Ondorioak | 34-35 |
| 11. Hobekuntza proposamenak | 36-38 |
| 12. Erreferentziak | 39-40 |
| 13. Eranskinak | 41-62 |
| 13.1. Irakaslea behatzeko taulak..... | 41-56 |
| 13.2. Psikomotrizitate gela Covid-19 aurretik..... | 57-59 |
| 13.3. Psikomotrizitate gela gaur egun..... | 60-62 |

1. Sarrera

Haur Hezkuntzako laugarren mailako ikaslea naiz eta graduako azken lan honetan, psikomotrizitate saioak Covid-19a baino lehen nolakoak ziren eta orain 5 urteko gela batean, nolakoak diren konparatu ditut.

Lehenik eta behin, aurten praktikak egin ditudan ikastetxearen testuingurua eta metodologia aurkituko dituzu. Ondoren, psikomotrizitatea zer den, psikomotrizitatearen helburuak zeintzuk diren, jolasaren garrantzia, eta Bernard Aucouturierrek sortutako metodologia praktika psikomotorra aurrera eramateko topatuko dituzu. Jarraian, lana aurrera eramateko ezarritako helburuak eta metodologia aurkituko dituzu, eta baita psikomotrizitate saioak koronabirusa baino lehen nolakoak ziren eta orain nolakoak diren ere. Segidan, koronabirusa baino lehenagoko praktika teoriarekin konparatu dut, eta hori eta gero, lehengo eta oraingo saioak alderatu ditut. Konparaketa horien ondorioak atera dira eta zenbait proposamen txertatu dira etorkizunean praktika psikomotorra hobetze aldera. Amaieran, lana burutzeko erabili diren bibliografia eta eranskinak topatuko dituzu.

Sarrerarekin amaitzeko, ikastetxeari eskerrak eman nahi dizkiot, aukera hau emateagatik, eta baita irakasleari eta haurrei ere. Bestalde, Gradu Amaierako Lan honen zuzendariari ere eskerrak eman nahi dizkiot, horrek eman didan aukeragatik, momentu oro laguntzeagatik, bidean gidatzeagatik, bere aholku eta animoengatik, eta nigan konfiatzeagatik.

2. Justifikazioa

Goian esan bezala, psikomotrizitate saioak koronabirusa baino lehen nolakoak ziren eta gaur egun nolakoak diren konparatu ditut, eta hainbat izan ziren gai hori hautatzera bultzatu ninduten arrazoiak.

Alde batetik, pandemia egoeran psikomotrizitate saioak beste modu batean antolatzen zituztela edo lehengo ekintza berberak proposatzen zirela ikusi nahi nuen, haurrek gaur egun garatzen zituzten gaitasunak zeintzuk ziren, irakaslearen jarrera nolakoa zen, etab. Beste aldetik, lan honen bitartez, adituek proposatzen dituzten urratsak, materiala, espazioa... koronabirusa baino lehen eta pandemia egoeran betetzen zirela ezagutu nahi nuen.

Horrez gain, interesatzen zitzaidan gaia zen, eta baita lan honen bidez, psikomotrizitateari eman behar zaion garrantzia ematen zitzaion ere ikusi nahi nuen.

Honekin lotuta, Aucouturierren (2004) arabera, gaur egun gorputzaren mugimenduaren bidezko garapen psikologikoari ez zaio behar adinako garrantzirik ematen. Egun garrantzi handiagoa ematen zaio ezagutza kognitiboari, aldiz, txikiak duen lehen ezagutza korporala da, eta ez kognitiboa. Beraz, txikitatik psikomotrizitatea landu beharreko ekintza dela dio.

3. Testuingurua

Santa Maria Marianistas Ikastetxea Gasteizen dago, hiriko erdigunetik oso gertu. Ikastetxe kristaua, itunpekoa eta eleanitza da, eta hezkuntza-eskaintza zabala du, Haur Hezkuntzatik Batxilergora bitarteko ikasleei zuzenduta dago. Historia handiko ikastetxea da, aurten 132 urte ditu, eta ospe handia du. 70ko hamarkadan, eskolaurreko etapa eskaintzen hasi ziren, horretarako 5 urteko bi gela ireki zituzten. Hamarkada horren amaieran, zentroan euskarazko klaseak ematen hasi ziren, borondatezkoak zirenak, eta handik gutxira, Haur Hezkuntzan B eredia abian jarri zen (Santa Maria Marianistas, 2017).

Haur Hezkuntzako ikasleek euskaraz erabateko murgilketa dute, horiek elebitasun maila on bat lortu ahal izateko, euskaraz jolasteko, komunikatzeko eta ezagutzak garatzeko tresna gisa erabiltzen da. Lehen urte horietan, ikasleek euskarazko komunikazio kompetentzia eta konpetentzia akademikoa garatzea dute helburu. Lehen Hezkuntzan, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez hitz egiteko gaitasuna izango dute, haurrak 3 urterekin hasiko dira ingelesa lantzen, eta Lehen Hezkuntzako bigarren ziklotik aurrera, elebidun orekatuak direnean, edukiak euskaraz eta gaztelaniaz gain, ingelesez ere emango dira (Santa Maria Marianistas, 2017).

Haurra alderdi orotan, pixkanaka eta osorik heztea da ikastetxearen helburua. Eskola hurbila, abegikorra, gardena eta komunikagarria da, zeinetan kide guztiak gustura sentitzen diren. Haientzat eskola partekatze, bizitzeko, ikasteko... leku bat da. Espazioak zabalak, argitsuak eta erabilera anitzekoak dira. Haur trebeak eta aktiboak nahi dituzte, eta horiek bertako protagonistak dira. Bestetik, nola hitz egiten dieten, eta zertaz, nola begiratzen dieten eta nola entzuten dieten zaintzen dute (Santa Maria Marianistas, 2017).

4. Ikastetxeko metodologia

Ikastetxeak 1-2 urteko ikasleekin, Emmi Pikler eta Loris Malaguzzi (2017) pedagogiak erabiltzen dituzte. Piklerren (2017) arabera, haurrari mugitzeko askatasuna eman behar zaio, kalitatezko zaintza eskaini behar zaio, eta bere ongizatea bermatu behar da. Malaguzziren (2017) arabera, aldiz, espazioari, talde txikiei, hezitzailearen hurbileko

arretari, estetikari, haurren prozesuak dokumentatzeari eta adierazpen tailerrei garrantzia eman behar zaio (Santa Maria Marianistas, 2017)

Une honetan, ikastetxea indarrean duen pedagogia-sistema berritzen ari da, gizarteak eta aldaketa teknologikoek hala eskatzen dutelako, eta hori dela eta, etapa guztietan aldaketak gertatzen ari dira (Santa Maria Marianistas, 2017).

Ikastetxeak martxan jarriko duen berrikuntza-prozesuaren oinarrietako batzuk hauek dira (Santa Maria Marianistas, 2017):

- Proiektu bidezko lana:

Ikasleek ikerketa-prozesu bat garatzen dute gai jakin baten inguruan, eta hori ikasle-taldearen interesekin eta motibazioekin bat dator.

- IKTak:

Teknologia berriak Haur Hezkuntzan aplikatzearen aldeko apustua egin dute, eta beraz, ordenagailuak, tablet-ak eta arbela digitalak ohiko tresnak bihurtu dira irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan.

5. Marko teorikoa

5.1. Psikomotrizitatea

Psikomotrizitatearen mundua zabala da. Funtsean, psikomotrizitatea haurra eta bere garapena ulertzeko modu bat da, haurra bere globaltasunean hartzeko saiakera bat. Hori dela eta, hitz berean “psikea” eta “motrizitatea” uztartzen dira, batez ere haurren kasuan, gorputza eta burua ezin direlako banatuta hauteman (Hik Hasi editoriala, 2015). Esan bezala, psikomotrizitatearen inguruan teoria eta iritzi ezberdin ugari eman dira. Jarraian, horietako batzuk agertuko dira (Pacheco, 2015):

- De Lièvre eta Staes (1992): Psikomotrizitatea psikismoa eta motrizitatea bateratu egiten dituen gizakiaren ahalmena da, gizakia ingurunera modu orekatu eta malgu batean modaltzeko.
- Berruezo (1995): Psikomotrizitatea hezkuntzaren edo terapeutikaren esku-hartzea da, gorputzaren bitartez, motrizitate-, sormen- eta espresio-aukerak garatzea helburu duena.
- Muniáin (1997): Psikomotrizitatea diziplina hezigarria, berrezigarria edo terapeutikoa da, gizakia unitate psikosomatikotzat hartu, eta gorputzaren mugimenduaren bitartez, pertsona osoarengan modu positiboan eragiten du.

Bestalde, Vizcarraren (2007) arabera, psikomotrizitatea

“heziketa metodologia edo teknika zehatz bat baino zerbait gehiago da, heziketaren filosofia da, bizitza ulertzeko eta jokatzeko era berezia. Munduan egoteko eta izateko modu bat da (Aucouturier, 2004:129). Mugimenduaren bidez pertsonaren garapen fisiko, psikiko eta soziala ahalbidetu, erraztu eta suspertzen duen gaitasun gisa definitu ohi da psikomotrizitatea (Herrera, 1993). Filosofia horren helburuen artean honako hauek nabarmen daitezke:

- Norbera ezagutzea eta onartzea.
- Portaera (jokabidea) egokitzea.
- Norberaren autonomia garatuz bizitza sozialean ardurak eskuratzeko gaitasunak hobetzea.”

Aitzitik, Urrestiren (2017) ustez, psikomotrizitateak

“joko librean du oinarria. Aktibitate honen helburu nagusia haurrak ondo pasatzea da. Haurrari jolasgune bat eskaini nahi zaio libreki, minik egin gabe, nahi duen jolasetan aritzeko. Haurra mugimendu librean, jolas librean, bere garapen integrala bideratzen du (garapen afektibo, emozionala, kognitibo, motor, sozial eta morala). Bestalde, harremanak (helduekin edota beste hurrekin) garatzeko parada ere izango du.”

Bernard Aucouturier, praktika psikomotrizitatearen sortzaileak, psikomotrizitatea mugimenduaren eta psikismoaren arteko erlazioa azaltzen duen terminoa dela aipatzen du. Bere ustez, haurraren garapen psikologikoan mugimenduak eragina du. Praktika psikomotorrak gorputzaren mugimenduaren bidezko haurraren garapenean jartzen du arreta, eta haurraren garapen psikologikoa gorputzaren mugimenduaren bitartez ematen da (Aucouturier, 2004).

Gaur egun, psikomotrizitateak Haur Hezkuntzan leku garrantzitsua dauka, pertsonaren garapen fisiko, psikiko eta soziala ahalbidetzen eta errazten duen gaitasuna baita. Aucouturierren iritziz, psikomotrizitate-praktikak gorputzarekin lan egin behar du, hura baita gizakiekin komunikatzeko lehen bidea, emozioen eta sentsazioen oinarria eta afektibitatea eta nahiak adierazteko tresna. Muskuluen tonua, begirada, distantziak, jolasa, mugimendua, eta, batez ere, ekintza eta elkarreragina esku-hartzearen elementu nagusiak dira, guzti hau jolasaren bitartez ematen da. Jarraitzeko, psikomotrizitateak hurrei beren bulkadei bide emateko aukera ematen die. Bulkada hauek arintzea ezinbestekoa da oreka afektiboa lortzeko. Haurrek inguruko mundua eta euren buruak ezagutzeko, euren beharrak asetzeko eta era autonomo batez moldatzeko hasieratik adierazpen motorraz baliatzen dira. Bestetik, mugimendu, joko eta keinu bakoitzak zentzu sinboliko bat dauka, eta horiek giro

egoki batean ematen direnean, haurrari pertsona bezala garatzeko aukera ematen diote (Madina, 2013).

5.2. Psikomotrizitatearen helburuak

Bernard Aucouturierren (2011) arabera, psikomotrizitatearen helburuak honako hauek dira:

- Funtzio sinbolikoaren garapenari laguntzea, jarduteko, jolasteko, eta sortzeko atseginaren bitartez, eta baita irakasleak haurrari sinbolizazio-maila ezberdinetatik pasatzen ere lagundu behar dio.
- Segurantzza-prozesuen garapenari laguntzea, larriminetatik askatzeko, jarduera motorraren atseginaren bitartez. Praktika psikomotorrak dimentsio prebentiboa izango du, haurra haiek urruntzeko eta onartzeko gai izango da. Era berean, jarduerak balio terauperikoa ere du, larriminek 7 urtetik aurrera umea gutxiago kezkatzen dute.
- Deszentratze-prozesuaren garapenari laguntzea, zeinak pentsamendu operatiboa lortzea ahalbidetzen duena.

Dominguez Sevillanoren (2002) aburuz, hiru helburu nagusi ezberdintzen dira (Vizcarra, 2007):

- Komunikatzeko plazera: komunikatzea ematea eta jasotzea da, sentimenduak eta desioak ulertzea, horiek azalera eta errespetatzea. Hori bizipen batzuen bidez adierazten da, esaterako, saltatuz, biratuz, bata besteari jarraituz, gauzak eraikiz eta botaz... eta askotan mezuak ez-berbalak dira.
- Sortzeko plazera: haurrak kanpoko mundua aldatu nahi du, baldin eta bizipen positiboa badu. Umeak gauzak manipulatzeko sormena lantzen du, eta horrek ongizate sentSORIALA, tonikoa eta afektiboa eragiten dio.
- Ekintza operatiboaren plazera: urteetan, haurrak bere behar eta lehentasunak asetzeko asmoz, emozioen bitartez errealitatea transformatzen du. Kasu horretan, deszentrazioa gertatzen da, objektuak bere balioa galdu, eta beste zentzu bat hartuko du.

Madinak (2013) dio, haurrari bera izaten lagundu behar zaiola, seguruago egoteko eta sortzaile izateko. Hori gertatzeko, umeak errespetatzen dutela, entzuten diotela, onartzen dutela eta aske dela sentitu behar du. Beste aldetik, ingurukoekin harreman egokiak izan ditzan lagundu behar zaio. Haurra seguru sentitzen denean, harreman personalak normalizatzen joango da, bai bere kideekin zein helduekin. Azkenik, psikomotrizitatea haur bakoitzaren mugimendutik, ekintzatik, abiatzen da eta hori ulertu eta

interpretatu behar da, hau da, ume bakoitzaren eskaera ezagutuko da, eta horri ahalik eta erantzun egokiena emango zaio. Haur bakoitza desberdina denez, aintzat hartuko da haurra nola mugitzen den, bere gorputza nola erabiltzen duen, zeri begiratzen dion eta nola, desadostasuna nola adierazten duen, espazioak hartzeko era, jokoan eta harremanetan nola erantzuten duen...

5.3. Jolasaren garrantzia

Jolasa zer den definitzea zaila da. Dena den, esan daiteke edozein adinetan praktikatzeko den jarduera ludikoa, atsegina eta dibertigarria dela. Haurrek ondo pasatzeko, objektuak aztertzeko, errealitatea ezagutzeko eta esperimendatzeko, beren aurkikuntzak praktikan jartzeko, parte hartzen ikasteko, besteekin erlazionatzeko eta bizitzen ikasteko jolasten dute (Gallardo eta Gallardo, 2018).

Herranzen (2013) arabera, jolasa funtsezkoa da adin guztietako haurren garapen fisiko, intelektual, afektibo, sozial, emozional eta moralerako. Jolasaren bitartez, umeek hainbat gaitasun eta ezagutza eskuratzen dituzte. Era berean, modu oso positiboan eragiten du garapen psikomotorrean, kanpo munduari buruzko informazioa ematen du, genesi intelektuala sustatzen du eta norbere burua ezagutzen laguntzen du. Horrez gain, jolasak berdinen arteko interakzioa sustatzen du, eta, batez ere, bizi-zikloaren une ezberdinetan presente egongo diren sentsazio, sentimendu, emozio eta desioak ezagutzea eragiten du (Gallardo eta Gallardo, 2018).

Historian zehar, hainbat teoria egon dira jolasari buruz. Ondoren, XX. mendeko jolasaren inguruko teoria desberdinak azalduko dira (Gallardo eta Gallardo, 2018):

- Pentsamenduaren estrukturaren bitartez jolasaren interpretazioaren teoria (Piaget, 1945): Piagetentzat haurraren garapenean jolasak hartzen dituen forma ezberdinak beren egitura intelektualen eraldaketan ondorio zuzenak dira. Jolas mota neurri batean egitura hauen isla da. Teorian, testuinguruaren edozein egokitzapenek, asimilazioa eta akomodazioaren arteko oreka suposatzen du. Piaget eta Inhelderrek (2007), jolasa lau kategoriatan sailkatzen dute: jolas funtzionalak, jolas sinbolikoak, arauzko jolasak eta eraikuntza jolasak.

- Jolas funtzionala: aldi sensorimotorrean zehar (0-2 urte) ematen da eta ekintzaren behar automatikoari erantzutea dagokio, umeak egoera berri batera egokitzeko izan dituen zailtasunak gainditzen dituenean, eskuratutako trebetasunak erabiltzen ditu gozamen funtzionala lortzeko (Valdés eta Flórez, 1996).

- Jolas sinbolikoa (2-7 urte bitartean): haurrek bi urte inguru dituztenean agertzen da eta objektuen erabilera sinbolikoagatik nagusitzen da. Inguruan dauden objektuak beste objektu batzuk irudikatzeko, inguruan ez daudenak, erabiltzen dira. Adibidez, kartoizko kaxa bat kotxea izan liteke (García eta Delval, 2010). Jolas mota hau 5-6 urteko umeengan ohikoagoa da, eta hauek 7 urte inguru dituztenean nagusi izateari uzten dio, arauzko jolasek ordezkatzeko dutenean, hain zuzen ere (Abad eta Ruiz de Velasco, 2011).
- Arauzko jolasak: haurrek 4-7 urte dituztenean agertzen dira. Arau sinpleko eta ekintzara lotuak dauden jolasak izaten hasten dira, eta 12 urte aldera, arauak konplexuagoak dira, logika induktiboa eta deduktiboarekin, hipotesien formulazioarekin eta estrategien erabilerarekin lotzen dira (Montañés, 2003). Jolas hauek jokalaria guztiek errespetatu behar dituzten arau batzuen arabera antolatuta daudelako nagusitzen dira, eta honek elkarren arteko kooperazioa eta lehia sortzen du (Delval, 1985).
- Eraikuntza jolasak: ez dira sekuentzia ebolutiboaren beste etapa bat; aitzitik, trantsizio bide bat dira jolas mota desberdinen eta egokitze jarreraren artean (Montañés et al., 2000). Jolas mota hauek haurrak urte bat duenean agertzen dira eta garapen fase guztietan presente daude. Jolas hauek funtsezkoak dira haurraren garapen integralerako, motrizitate fina eta begi-esku koordinazioa garatzen laguntzen dutelako, irudimena eta sormena sustatzen dutelako, eta arreta eta kontzentrazioarako gaitasuna hobetzen laguntzen dutelako.
- Jolasaren teoria soziokulturala (Vygotsky, 1933): jolasa ordezkaren prozesua dela dio, gauzatu ezin den desira imajinarioa da. Imajinazioak umearen lehen haurtzaroko kontzientzian falta den formakuntza osatzen duela aipatzen du. Bere ustez, jolasean umeak fikziozko egoera bat eratzen du, eta azpimarratzen du haurrak ez duela jolasean sinbolizatzen, horren ordez, bere desirak asetzen ditu. Vygotskyren arabera, jolasak haurraren garapenaren gertutasunezko eremu bat eratzen du, eta umea beti dago bere adinetik gora. Jolasak berez joera ebolutibo ezberdinak aurkezten dituen zenbait alderdi ditu, eta hori dela eta, garapenerako oso garrantzitsua da. Egile honek, jolasaren eta haurraren testuinguru sozialaren arteko erlazioa ezartzen du, eta jolasaren bidez, haurrak helduentzako jardueretan proiektatzen direla eta etorkizuneko paperak eta baloreak irudikatzen direla esaten du. Modu honetan, jolasa garapenaren aurretik doa, eta umeak parte hartze sozialerako motibazioa, gaitasunak eta jarrerak eskuratzen hasten dira (Vygotsky, 2008).

5.4. Saioaren egitura

Hurrengo lerroetan, saioko ondoz ondoko faseetako edukiak, Aucouturierren arabera, azalduko dira (Aucouturier, 2011):

1. Saioan sartzeko errituala

Saioaren hasierako erritualak garrantzi handia du, psikomotrizitate saioa egunerokotasunetik bereizten baita, eta haurrak maila sinbolikoan jarduteko prestatzen dira.

Haur guztiak banku batean esertzen dira, aretoa eta talde osoa ikusi behar dituzte:

- Aretoan ez daudenak aipatuko dira, beste pertsonekin dituzten harreman afektiboen une bateko galeraren garrantzia adierazteko.
- Aretoa haientzako prestatu dugula gogoraraziko zaie.
- Arauak errepatatuko dira:
 - ❖ Besteei ez diegu minik egin behar, ezta norberaren buruari ere.
 - ❖ Ezin dugu materiala puskatu, ezta materiala espazio batetik bestera eramanez ere.
- Saioaren nondik norakoak azalduko ditugu.
- Aurreko saioak gogoratuko ditugu, umeek zer gustatu zitzaizkien eta zer ez adieraziko dute.

Umeak bankuan eseri baino lehen, arropak eta zapatak kenduko dituzte eta haur bakoitzak horiek gordetzeko leku bat izango du. Hori egiten daudenean, ez zaie presarik sartu behar, hezitzaileek erantzten lagundu ahal die; momentu hori hurrekin hitz egiteko aprobetxatuko da.

2. Adierazkortasun motorraren faseko edukiak

Sarrera eta gero, hurrek haientzat eraiki diren kuxinezko hormak suntsitu behar dituzte. Hezitzaileak hori noiz egingo duten esango die eta umeen jolasteko desioa handia izango denez, batzuk urduri egongo dira. Hezitzaileak umeak denbora gehiago geldirik ezin direla egon ikusten duenean, kuxinezko hormak suntsitzeko esango die.

Harresia denen artean suntsitzea da helburua, eta momentu horretan, emozio kolektibo bizia askatzen da. Jolasa iraun dezan, hezitzaileak behin eta berriz dorrea berreraikiko du. Hurrek poz handiko giroan suntsitzen dute, horri esker, suntsitzeko atseginarekin erruduntasuna gainditi daiteke.

Esan beharra dago suntsitzeak ez duela beti galtzea suposatzen; harresia botatzen bada, denen artean beste bat berreraiki daiteke. Horrekin lotuta, batzuetan umeak dorreak

berriro egiten ari denean, hezitzailea hurbil ez egotea nahiago du, haurrak helduaren gaineko nagusitasunaz disfrutatzen du. Bestalde, suntsitzeko atsegina oso laburra da, haurrek hori bizi izan dutenean, eta hormaren suntsipena praktika psikomotorra abiarazteko aitzakia bat besterik ez da.

3. Hizkuntza bidezko segurantza sakonaren faseko edukiak <<Istorioa>>

Saioaren erdian edo amaieran, hurrei korroan esertzeko eskatuko zaie eta abesti bat abesteko proposatuko diegu, batzuetan haien adinera egokitutako istorio laburra ere kontatuko diegu. Karga emozional handia duten istorioak hautatuko ditugu, euren egunerokotasunarekin lotura dutenak, umea pertsonaia batekin identifikatuta sentitzeko. Bestetik, istorioa beti leku berean kontatuko da, hurrek espazio horretan zer egiten den jakingo dute.

Istorioak bi erregistro bete behar ditu:

- **Larrimina handitzea** (narrazioari balio dramatiko ematen dio). Narrazioak beldurrezko gaietan eta inkontzienteko gai garrantzitsuetan oinarritzen dira, jazarria eta suntsitua izateko larriminari eta ama galtzeko larriminari dagokienetan.
- **Segurantzaren oinarrietara itzultzea** (haurrari segurtasun emozionala sortzen dio). Istorioko heroiak irabaztea eta erasotzailea gainditzea garrantzitsua da, haurra horrekin identifikatuko baita.

4. Adierazkortasun plastiko eta grafikoaren faseko edukiak

Adierazkortasun motorraren espazioan egon eta gero, umei adierazkortasun plastiko eta grafikoaren espaziora igarotzeko eskatuko zaie. Leku honetan, hurrek marraztu edo eraiki egin dezakete, aukera librea da. Umei eraikuntzak lurrean egin behar direla eta marrazkiak, berriz, mahai baten gainean edo plano altuago batean, gogoraraziko diegu. Jarduera hauei esker, haurrak sinbolizatzeko gaitasun-maila handiago batera iristen dira, baita deszentratzea ere lortzen dute.

Haur bakoitzaren erritmoa errespetatuko dugu eta ez dugu jolasa etengo, eten horrek haurraren irudikapenaren eta haren harreman-historiaren sinbolizazioa etengo lituzke. Hezitzailea haur edo taldeen ondoan egongo da, umei behar duten materiala eskuratzen laguntzeko eta haien ekoizpenetik abiatuta komunikazioa ezartzeko.

5. Irteera errituala

Saioa amaitzeko ezinbestekoa da eta adierazkortasun plastiko eta grafikoaren fasearen edo istorioaren ondoren errespetatu egin behar da. Haurren adinaren arabera, erritual desberdinak proposa daitezke. 1. zikloan, korroan abesti bat abestu dezakegu, haurrek ondo ezagutzen duten kanta bat aukeratzen badugu, hauek seguruago sentituko dira. 2. zikloan, berriz, haur bakoitzari izen-abizenez deituko zaio, eta bere arropa janzteko esango diogu, horri eskua eman ondoren.

6. Materiala jasotzea

Saioaren bukaeran materiala jasotzea sarritan arazoa izaten da, zenbait ume berriro jolasten hasten direlako. Hori ez gertatzeko, lauzpabost hurreko taldeak egin daitezke eta horiei eginkizun zehatzak eman ahal dizkiegu. Modu horretan, haur batzuk janzten diren bitartean, beste batzuk materiala jasotzen egongo dira; taldeak txandakatuko dira saio batetik bestera.

Beste autore batzuek ere urrats berdinak proposatzen dituzte, besteak beste, Ostau de Lafond (2017), eta Arnaiz, Rabadán, eta Vives (2001). Fusté eta Bonastrek (2014), ordea, hiru urrats bakarrik planteatzen dituzte; hots, sarrera-errituala, jarduera motorra eta amaiera-errituala (Anduaga, 2019).

Bestetik, Vizcarrak (2007) honako atal hauek proposatzen ditu:

1. Aurreko atala. Gelako txokoak prestatu:

Helburu eta edukien arabera, hainbat gune prestatzen dira: jauzi eta erorketena, orekarena, material biguneko eta gogorreko zirkuituak, etab. Txoko bakoitzean jorratuko diren gaitasunak haur bakoitzaren mailara egokituta egongo dira. Irakasleak erabakiko du zenbat txoko antolatu, eta gutxienez, bi edo hiru gune desberdin behar dira.

2. Harrerako atala:

Haurrek oinetakoak eta berokia kenduko dituzte, elkar agurtuko dute, arauak birgogoraturako dira (segurtasun-neurriak, besteenganako errespetua...). Egun horretako txokoak azalduko dira, materiala komentatuko da, burutu daitezkeen jardueri buruzko iradokizunak egingo dira, umeei haien iritzia emateko eta galdetzeko aukera izango dute; baita une horretan ere arnasketa-ariketak, erritmokoak eta abestiak landu daitezke.

3. Atal oldartsua:

Irakasleak esandakoan eraisteko garaia iristen da (“derribo” ere esaten zaio): umeei esponjen dorrea behera botako dute eta pilotez betetako ontzira edo koltxoneta handira beren burua botako dute, hori guztia algara eta garrasi artean. Umeei irakasleak ezarritako

antolaketa apurtzen dute, tentsio emozionalak askatzen dituzte eta gorputzeko giharren blokeoa gainditzen dute.

4. Berezko jarduera motrizaren atala:

Hasieran, haurrak etengabe euren kabuz txoko batetik bestera dena eramaten aritzen dira. Aniztasun horri esker, era guztietako gaitasun eta mugitzeko beharrak asetzen dituzte. Gune horiei esker, mugimendua bizi dezakete, esperimintatu, gauzatu, erabakiak hartu, arazoak ebatzi, sortu, komunikatu... egiten dutelako. Momentu horretan, zailtasun maila guztietako eredu psikomotrizak lantzen dira. Irakaslearen helburua jarduera hori aberastea izango da. Horretarako, espazioak behin eta berriro antolatuko ditu, materiala gehituz, kenduz, lekuz eta egoeraz aldatu, etab. Umeei zenbait egoera gainditzen dituztenean, zailtasun maila handiagoko arazoei aurre egiteko gai izango dira. Atal hori luzeena izango da, 25-30 minutu iraun dezake, eta jarduerak era askotakoak izan daitezke: kulunkak, presioak, jauziak, garraioak, birak, trepak (igoerak), orekak, hustuketak, lekualdatzeak, esekitzeak, erorketak... Horretarako, era askotako materialak konbinatuko dira: gogorrak-bigunak, tinkoak-mugikorrek, etab.

5. Jolas sinbolikoa eta eraikitze atala:

Irudikatze jolasean, haurrak bizitza errealeko objektu, jarduera edo une bat irudikatzen du, fantasia eta errealitatea elkartuz. Horretarako, hainbat baliabide utziko zaizkio eskura: zapiak, soka, uzaia, kuxina... Tresna neutro horiei haurrak bere sinbologia eransten die. Jolas horiei esker, barruan gordetako barne-gatazkak kanporatu ditzakete. Jarduera horrek hainbat helburu ditu: erruduntasun-sentimendua gutxitzea, errealitatea onartzea, benetako egoeretara egokitzea, egoera deserosoak onartzea, debekatutako jarduerak antzeztea... betiere norberaren onarpena sendotuz. Irakasleak beren bizipenak ahoz adieraztera bultzatu behar ditu, eta atal honek 10-15 minutuko iraupena du.

6. Analisisirako atala:

Aldi honetan, curriculumeko helburuetara bideratutako joko zuzenduak edo gidatuak landuko dira: itxurak, koloreak, neurriak, espazioaren nozioak... Zehaztasun motrizeko edo koordinaziozko jokoak ere sar daitezke. Aipatu diren azken bi atal horiek ez dira saio guztietan jorratuko.

7. Irudikatze eta mintzatze fasea:


Ahoz, marraztuz, plastilinaz, antzetzuz... saioan bizitakoa adierazi behar dute. Bizitako kontzeptuak barneratzeko, oroimena lantzeko, ordezkapena eta kontzeptualizazioa jorratzeko espazio hau oso baliagarria da.

8. Jasotzeko atala:

Materiala jaso behar da, haurrek ohitura egokiak hartzen hasteko, gelan materialak jasotzen direnean bezala.

9. Agurrerako atala:

Jarduerarekin deskonektatu eta taldea berriro elkartuko da. Ariketa albo batera utzi eta erlaxatzeko unea hasten da, esaterako, erritmoarekin batera tren osatu daiteke. Txikiak oinetakoak janzten ari direnean, saioari buruz hitz egin daiteke, eta baita umeei ere elkar agurtuko dute.



1. irudia. Psikomotritate saioaren atalak (Vizcarra, 2007)

5.5. Materiala

Aucouturierrek bitan sailkatzen du materiala (Aucouturier, 2011):

- Adierazkortasun motorrerako materiala

- ❖ Altzariak: horma-barrak, ispilu handi bat, arbela, armairuak, plastikozko kutxak, mugi daitezkeen kutxa itxiak.
- ❖ Material biguna: koloretako oihalez estalitako aparrezko kuxinak, zenbait tamainatakoak, koloretako oihalak, pelutxezko animaliak, oihalezko panpinak, kotoizko soka motzak, aparrezko hodiak, aparrezko pilotak.
- ❖ Material goqorra: kautxuzko uztaiak, zurezko makilak, tamaina guztietako azpil eta ontziak, perkusio-tresnak.

- Adierazkortasun grafiko eta plastikorako materiala

- ❖ Altzariak: mahai obalatuak edo biribilak, esertzeko aulkiak.
- ❖ Marrazteko materiala: orri zuriak, errotuladoreak, arkatzak.
- ❖ Eraikitze materiala: berniz koloregabek estalitako zurezko eraikuntza-materiala.

Aucouturierrek (2011) aipatzen du, toki bakoitzari material jakin bat dagokiola, eta materiala ezin dela leku batetik bestera eraman. Arau hori errespetatuko da, haurrak adierazkortasun motorretik sinbolizatze-maila desberdinetarako ibilbidea egiteko.

Vizcarrak (2007) dio, haurrak bere gorputza ikusten badu, sentipen hobeak izango dituela, hori dela eta, bere ustez, gelan ispilu bat egon behar da. Bestalde, espazioa esperimentatzeko materiala hau izango zen: tamaina eta azalera askotako pilotak, paperak, oihalak, mantak, koltxonetak, uztaiak, goma-aparreko makilak, goma-aparreko bloke handiak, sokak, plastikozko tutuak, kartoizko tutuak, puxikak, birziklatzeko materiala, etab. Horrez gain, igotzeko, ezkutatzeko eta labaintzeko materiala ere egongo da, esaterako, mahaiak, suediar eserlekuak, hormako barrak, igotzeko sokak, kartoizko eta plastikozko kutxa handiak, kutxa zulatuak, gurpilak... Gora igotzeko nahiak, ezkutatzekoak edota babestekoak egoera afektiboak bizitzeko balio dute.

Pachecoren (2015) aburuz, materiala infinitua da, objektu didaktiko bezala erabiltzen diren elementuek mugimendua sustatu behar dute, hala nola, oihalak, egurrezko takoak, kolore, tamaina eta forma ezberdinetako kuxinak, pelutxeak, sokak, goma elastikoak, uztaiak, pikak, koltxonetak, tamaina, pisu eta testura ezberdinetako baloiak, arrapalak, etab.

Fonteren (2009) iritziz, hainbat gauza eraikitzeke balio duen materiala egon behar da gelan. Umeeke dorre altuak egiten dituzte, eta horien bidez euren burua irudikatzen dute. Beste batzuetan, aldiz, oihalak hartzen dituzte eta super heroietara jolasten dute. Gelak segurtasuna eskaintzen badu, haurra lasai egongo da, eta libreki jolastuko du.

5.6. Espazioa eta denbora

Haurren adierazkortasun motorra garatzeko, leku-denborazko dispositibo bat jartzen da haien eskura (Aucouturier, 2011).

- Dispositibo espaziala:

Psikomotrizitate gela bi espaziotan banatzen da: alde batetik, adierazkortasun motorrerako espazioa dago, eta bestetik, adierazkortasun plastikoari, grafikoari eta hizkuntzari dagokiona. Lehen tokia zabala da, jolas-jarduera guztietarako espazio baliagarria da, eta material espezifikoa du. Bigarren tokia txikiagoa da, eta horrek ere material espezifikoa du.

Haurrak gelara sartu aurretik bi espazioak prest egon beharko lukete. Komeni da haurrek saio guztietan material bera aurkitzea, horrek segurtasuna emango die, eta aldi

berean, irudimena eta atsegina baimenduko ditu. Saioan zehar, haurrei lehen tokitik bigarrenera igarotzeko esango zaie.

Psikomotrizitate-aretoa areto espezifiko bat da, jarduerarako erabiltzen dena, zeinetan haurrek eboluzionatzen duten. Aretoa argitsua izan behar du eta arreta handiz zaindu behar da, materialak garbi egon behar dira, eta erakargarria izan behar du. Azken finean, psikomotrizista eta haurrak ongi sentitu behar dira espazio horretan (Aucouturier, 2011). Horrez gain, Pachecok (2015) dio, psikomotrizitate-gela leku epela, atsegina, eroso, eta mugitzeko espazio zabala izan behar dela, oztoporik gabekoa, mugimendu librea lantzeko, eta baita ispilu handi bat ere egon behar dela aipatzen du, umek nola jolasten duten ikus dezaten.

- Denborazko dispositiboa:


Hiru fase nagusitan banatuta dago: lehenengoa adierazkortasun motorraren denbora izango da, bigarrena istoriorako, eta hirugarrena adierazkortasun plastiko eta grafikoarena. Aipatutako hiru fase horiek sarrera-erritualarekin eta irteera-erritualarekin osatzen dira.

Saioaren iraupenari dagokionez, haurren adinaren arabera aldakorra da. Normalean, 60 minutuko iraupena du, baina 2 urteko haurrekin laburragoa izan daiteke, eta 5-6 urteko umekin, aldiz, 80 minutura arte luza daiteke. Haur kopuruari dagokionez, egokiena da psikomotrizista bakoitzeko 10 ume egotea.

Psikomotrizitate saioa, umeen adinaren arabera, desberdina izango da. 0-1 urteko haurrekin psikomotrizitate gelara joan beharrean, noizbehinka haien gela egokitzea izango litzateke aproposena. Sehaskak alboratu, lastairak atera eta aldapa txiki batzuk, haurren adina beti kontuan izanda, jarriko dira. Egunean zehar, horretarako 20-30 minutu edukiko dituzte, haurrek euren gorputza eta mugimenduaren plazera ezagutuko dute. Bestetik, haurrak ibiltzen hasten direnean, hauek hainbat aukera dituztenean eta segurtasun handiagoa dutenean, psikomotrizitate gelara joaten hasiko gara. Ume horiekin (1-2 eta 2-3 urtekoekin) psikomotrizitate saioak oso orokorrak izaten dira. Kasu horietan, saioa hasierako erritual motz batekin hasten da eta ez daude faserik. Haurra mugimenduaren plazera eta bere burua ezagutzea da garrantzitsuena. Ezin da sozializazioa behartu; aitzitik, lehendabizi umek bere burua bizi behar du plazerean, eta hori gertatuko da, baldin eta bere inguruan ziurtasuna ematen dioten helduak badaude, horrek ahalik eta autonomia handienaz gozatu eta bere burua eraikiko du. 0-3 urte bitartean, batez ere, haurrek segurtasunaren oinarria ezarri behar dute (Beñaran, 2010).

5.7. Psikomotrizistaren papera

Psikomotrizistak haurren sinestu behar du haurrak edozein zailtasun izanda ere. Haurrak esperientzia paregabea bizi duten pertsona gisa tratatu behar dira. Umea errespetu- eta konfiantza-giroan dagoenean, bere irudimena eta emozioak aditzera emateko gai da, ez du beldurrik izango inork ez duelako epaituko. Era berean, helduak entzuteko gaitasuna izan behar du, baita hitzezkoak ez diren ekoizpenen esanahia ere ulertu behar du (Aucouturier, 2011). Aucouturierrek kide sinbolikoa izateko gaitasuna izan behar duela ere aipatzen du, hau da, psikomotrizistak haurra ekintzan edo jolasean lagundu eta zuzenduko du, betiere zentzuz jokatzuz (Beñaran, 2017). Camps Aucouturierrekin bat dator, alegia, psikomotrizistak izan behar dituen ezaugarrien artean entzuteko gaitasuna eta kide sinbolikoa izateko gaitasuna aurkitzen dira (Camps, 2008).



2. irudia. Psikomotrizistaren jarrera (Camps, 2008)

Aucouturierren esanetan, psikomotrizistak lege-segurtasun figura izateko gaitasuna izan behar du. Psikomotrizistak haurrari neurritsua izaten eta egituratzen lagunduko dio, bere desira eta gaitasunak erreprimitu eta mugatu gabe. Psikomotrizitate-gelaren oinarritzko legea “ez minik hartu, ez minik egin”, defendatuko du, eta hori dela, haurra pixkanaka-pixkanaka sinbolikoaren eta errespetuzko komunikazioaren munduan sartzen hasiko da (Beñaran, 2017).

Gainera, haurren sentimendu positiboa izan behar du, helduak keinuak egingo ditu edo barre egingo du, umeek ikusteko beraiekin gustura dagoela. Haurrek psikomotrizista eskura dutela sentitu behar dute, eta psikomotrizitateak begirada periferikoa ere izan behar du, haurren jarduerari eta haurren arteko harremanei dagokienez, arretatsu

jokatu behar du. Psikomotrizistaren begirada periferikoa beharrezkoa da hurrei segurtasuna emateko, eta segurtasun hori mantentzeko, haurren jardueretan duen partaidetza mugatu behar du, baita hurrek parte hartzeko eskatzen diotenean ere (Aucouturier, 2011).

Bestetik, helduak haurra jolasaren bitartez errealitatea eraiki, ulertu eta asimilatzen duela jakin behar du, eta baita jolasak ingurunera egokitzeko balio duela ere, beraz, zein den bere ekintzen zentzua kontuan izan behar du. Umeak jolasaren, gauzak egiteko atseginarene bidez bere larriminetan segurtasuna bilatuko du. Winnicott-ek esaten du, arduratsu edota erantzuleak diren pertsonak haurrak jolasten daudenean prest egon behar dutela, baina horrek ez du esan nahi beraiekin jolastu behar dutenik. Heldua ez da haurraren jolasean sartuko, haurrak eskatzen ez baldin badio, hori gertatu arte, itxarongo du. Oso garrantzitsua da umeak bere nahiak, bere premiak... adieraztea eta heldua ez aurreratzea. Horrek haurrak behatu eta entzungo ditu (Polentinos, 2006).

Psikomotrizistaren rola praktika psikomotorraren oinarrietako bat da. Haurra, hezitzailea eta hezkuntza-harremana ulertzeko moduagatik beste diziplina batzuetatik desberdina da. Prestakuntzaren esparru honetan, ezinbestekoa da haurren adierazkortasuna eta lan honen oinarri teorikoak ulertzea, eta erantzun egokiak ematea (Sánchez eta Llorca, 2008).

Sánchez eta Llorcaren (2008) arabera, psikomotrizistak ezaugarri hauek izan behar ditu:

- Behatzeko eta entzuteko gaitasuna.
- Adierazkortasun psikomotriza.
- Haurraren garapena sustatzeko, jokoan inplikazio estrategia desberdinak erabiltzeko kapazitatea.
- Sormena erabiliz, praktika motorrerako testuinguru ezberdinak sortzeko kapazitatea.
- Familiarekin eta beste profesionalekin komunikatzeko gaitasuna.
- Bere buruari begiratzeko abilezia.

6. Helburuak

Lan honen helburu nagusia psikomotrizitate saioak koronabirusa baino lehen nolakoak ziren eta orain nolakoak diren analizatzea eta konparatzea da.

Bestalde, beste helburu zehatz batzuk ere lortu nahi dira:

- Psikomotrizitateak Haur Hezkuntzan duen garrantziaz jabetzea.
- Bernard Aucouturierren metodologia ezagutzea, aztertzea eta balioestea.
- Koronabirusa baino lehenagoko eta gaur egungo saioek duten onuraz jabetzea.
- Hezitzailearen papera zein den ezagutzea eta hori aztertzea.
- Hezitzailearen paperak psikomotrizitate saioetan duen garrantziaz hausnartzea.
- Gaur egun, irakasle-ikasleen arteko eta ikasleen arteko harremanak nolakoak diren aztertzea.
- Gaur egun, ikasleak erabat motibatuta dauden ikasi behar duten horren aurrean aztertzea.

7. Metodologia

Aurten, Santa Maria Marianistas Ikastetxean egin nituen praktikak, eta bertako psikomotrizitate saio batzuk behatu nituen. Goian aipatutako Aucouturier metodoan oinarritzen ziren, eta aurten ere, astean behin ordu betez psikomotrizitate gelara joaten ziren. Psikomotrizitate gela beste eraikin batean dago, bertara joateko patioa zeharkatu behar da. 5 urteko gelan egon nintzen, eta guztira 24 ume ziren. Ikastetxean urtarriletik martxora arte egon nintzen, eta psikomotrizitate saioak nola antolatzen zituzten ikusteko aukera izan nuen. Tarte horretan, 4 saio behatu ziren, eta ondoren, taula bat bete zen. Irakasleak saioetan proposatutako ekintzak, eta baita horrek ere izandako jarrera, Sánchez eta Llorcak (2008) eginiko taulan jaso ziren. Guztira 58 item zehaztu ziren, eta adierazle bakoitzak hiru erantzun-aukera zituen: bai, batzuetan edo ez.

Iaz, hurrek 4 urte zituztenean, eta koronabirusa ez zegoenean, psikomotrizitate saioak nolakoak ziren nire tutoreak azaldu zidan. 4 saioei buruzko informazioa eman zidan, bigarren hiruhilekoan ere behatutako saioak ziren, eta horrekin goian aipatutako taula bete zen. Esan bezala, guztira 8 taula bete ziren, baina lortutako emaitzak oso antzekoak zirenez, bakarrik 4 taula islatzea erabaki dut, koronabirusa baino lehenagoko saioei dagokienez, bi taula txertatu dira, eta praktikaldian behatutako saioei dagokienez, berriz, bi taula (1. eranskina).

Beraz, koronabirusa baino lehen psikomotrizitate saioak nolakoak ziren eta orain nolakoak diren azalduko da. Guztira 8 saio agertuko dira, horietako batzuk Practicumean zehar behatu dira, eta koronabirusa baino lehenagoko saioei buruzko informazioa Ikastetxeko tutoreari esker lortu da.

8. Saioak

Hurrengo lerroetan, iaz, koronabirusa ez zegoenean, psikomotrizitate saioak nolakoak ziren azalduko da. Ondoren, pandemia egoeran horiek nola antolatzen dituzten topatuko duzu.

8.1. Lehenengo saioa Covid-19a aurretik

Haurrak astelehenetan, 15:10etatik 16:10etara, psikomotrizitate gelara joaten ziren.

Irakasleak saioak planifikatzeko haurren beharrak eta gaitasunak aintzat hartzen zituen:

Sarrera-errituala

Guztiak bankuan eserita zeudenean, irakasleak ea norbait falta zen galdetu zien, arauak birpasatu zituzten eta nola sentitzen ziren galdetu zien. Psikomotrizitate gelako arauak hauek ziren:

- Ez oihukatzea.
- Besteei minik ez egitea.
- Korrika ez egitea.
- Besteei materiala ez kentzea.

Bukatzeko, irakasleak zertara jolastuko zuten galdetu zien hurrei, eta horri buruz minutu pare bat hitz egin ondoren, umeak ilaran jarri ziren, kuxinezko dorrea botatzeko.

Haurrak bankuan eseri baino lehen, berokiak eta oinetakoak kendu zituzten.

Adierazkortasun motorraren fasea

Haurrak dorrearen aurrean zeudenean, irakasleak hirura arte zenbatu zuen eta horiek zitzu bizian dorrea bota zuten. Ume batzuek dorrea botatzeko ez zuten aukerarik izan, eta kasu horretan, irakasleak dorre batzuk eraiki zituen horiek botatzeko. Dorreak bota ondoren, haurrak libreki jolasten hasi ziren. Adierazkortasun motorrerako materiala hau zen:

- Kuxinak
- Kuxin zilindrikoak
- Koloretako oihalak
- Izarak
- Zapiak
- Pelutxeko animaliak

- Panpinak
- Aparrezko hodi edo txurroak
- Plastizkozko kutxak
- Koltxonetak
- Tatamia
- Horma-barrak
- Ispilua

Irakaslea momentu oro haurrak behatzen egon zen, horiek animatzen zituen eta behar zutenean, laguntza eskaintzen zien. Bestalde, umeen jolasean ez zen sartu, horren orde, haien albotik pasatzen zenean, zer egin zuten eta nola egin zuten galdetzen zien, eta batzuetan ere zuzentzen zituen. Haurrek egindakoa ez zuen baloratu eta horiei erantzuten utzi zien. Baita gatazkak konpontzeko irtenbideak bilatzen ere lagundu zien, umeek haien artean zituzten arazoak konpontzen ez zituztela ikusi zuenean. Saio guztietan, irakasleak modu berean jokatu zuen eta ikasleek material berdina erabili zuten.

Aretoari dagokionez, areto zabala, argitsua, segurua, erakargarria eta garbia zen, zutaberi gabekoa, zeinetan haurrak askatasun osoz mugitzen eta jolasten ziren. Eskuinaldean, berokiak eskegitzeko esekitoki bat zegoen, eta ezkerrean, aldiz, bankuak zeuden. Esekitoriaren alboan, ispilu handi bat zegoen, eta horren parean, horma-barrak, koltxonetak, tatamia, kuxinak, aparrezko hodiak... eta musika-aparatua zeuden. Ispilua eta koltxoneten erdian, adierazkortasun plastiko eta grafikorako espazioa zegoen. Horrez gain, gelan ere leihoak zeuden, horiek patio aldera ematen zuten eta ez zeuden haurren eskura, hori dela eta, umeak leihoen beste aldean zegoen gauzetan ez ziren zentratzen, horren orde, egiten zutenari arreta osoa eskaintzen zioten (2. eranskina).

Adierazkortasun plastiko eta grafikoaren fasea

Saioa bukatzeko 20 minutu falta zirenean, haurrak adierazkortasun plastiko eta grafikorako espaziorantz abiatu ziren, betiko moduan irakasleak bertara lehengoko bankuak eramane zituen, haurrak esertzeko eta erosoago egoteko. Irakasleak umei plastilina zati bat eman zien eta horiek saioan bizitakoa plastilinaz adierazi behar zuten. Haurrak espazio horretan zeuden bitartean, irakasleak gela jaso zuen eta hurrengo talderako dorrea eraiki zuen. Irakasleak dena jasotzen bukatu zuenean, hurrekin bildu zen eta horiei zer egin zuten galdetu zien.

Irteera-errituala

Hurrek arropak eta zapatak jantzi zituzten, eta irakasleak laguntza behar zutenei, lagundu zien. Hori eta gero, umeak ilaran jarri ziren gelara joateko. Ilaran, irakasleak klasera sart baino lehen komunetik pasatzeko eta ura edateko gogorarazi zien.

8.2. Bigarren saioa Covid-19a aurretik

Kasu guztietan, saioaren egitura berdina zen.

Korroan, haurrak nola sentitzen ziren esan eta gero, irakasleak ikasleek egindako ekintza berriak aipatu zituen, eta horiek beste umeekin eta komentatutako jolasetara jolastera animatu zituen. Bestalde, hurrek aurreko saioei buruz zuten iritzia ere esan zuten.

Kasu honetan, haur batek hirura arte zenbatu zuen eta umeek dorrea gogo handiz bota zuten, jolasari hasiera emanez. Adierazkortasun motorrerako espazioan, aurreko saioan bezala, hurrek libreki jolastu zuten.

Adierazkortasun plastiko eta grafikorako espazioan, berriz, irakasleak egurrezko blokeen bidez saioan bizitakoa adierazteko eskatu zien hurrei. Umeak hori egiten zeuden bitartean, irakasleak gela jaso zuen eta hurrengo talderako dorrea eraiki zuen. Gero, ikasleekin bildu zen eta haurrak bizitako esperientzia kontatzera animatu zituen.

8.3. Hirugarren saioa Covid-19a aurretik

Adierazkortasun motorraren fasea

Irakasleak “bat, bi eta hiru” esatean, umeek dorrea gogo handiz bota zuten. Haur batzuek ez zuten dorrea bota, eta kasu horietan, irakasleak haientzat dorre batzuk eraiki zituen. Ondoren, hurrek nahi zutenera jolastu zuten.

Adierazkortasun plastiko eta grafikoaren fasea

Saioa amaitzeko 20 minutu geratzen zirenez, haurrak adierazkortasun plastiko eta grafikorako espaziora joan ziren. Bertan, irakasleak margoak eta folioak banatu zizkien eta hurrei saioan bizitakoa marrazteko esan zien. Bitartean, berak hurrengo talderako gela prestatuta utzi zuen.

Irteera-errituala

Umeek arropak eta oinetakoak jantzi zituzten eta ilaran jarri ziren. Irakasleak klasera iritsi bezain laster, marrazkia haien kutxatilategian gordetzeko komentatu zien.

8.4. Laugarren saioa Covid-19a aurretik

Sarrera-errituala

Oraingo honetan ere, irakasleak umeei nola sentitzen ziren galdetu ondoren, irakasleak hurrek egin zituzten ekintza berriak aipatu zituen eta horiek jolas horietara jolastera animatu zituen. Horrez gain, umeei aurreko saioei buruz zuten iritzia ere azalera zuten.

Adierazkortasun motorraren fasea

Haur batek hirura arte zenbatu zuen eta umeei zitu bizian dorrea bota zuten, jolas libreari hasiera emanez.

Adierazkortasun plastiko eta grafikoaren fasea

Haurrak 20 minutu faltatzen zirenean, adierazkortasun plastiko eta grafikorako espaziora joan ziren. Irakasleak plastilina eraman zuen gelara eta hurrek saioan bizitakoa plastilina bidez adierazi zuten. Bukatu zutenean, binaka jarri ziren eta bata besteari bizitako esperientzia kontatu zioten. Umeak hori egiten zeuden bitartean, irakasleak material guztia jaso eta dorrea eraiki zuen. Ondoren, hurrekin elkartu zen eta horiek zer egin zuten azaldu zioten.

Koronabirusa baino lehen, psikomotrizitate saioaren iraupena ordu batekoa zen. Gutxi gorabehera, sarrera-erritualari, 10 minutu eskaintzen zizkieten, adierazkortasun motorraren faseari 30 minutu, adierazkortasun plastiko eta grafikoaren faseak 15 minutu irauten zuen, eta azkenengo faseak, aldiz, 5 minutu.

8.5. Bosgarren saioa Covid-19a ondoren

Jarraian, psikomotrizitate saioak Covid-19a dela eta, nolakoak diren aurkituko duzu.

Astearteetan, goizeko bederatzietan psikomotrizitate gelara joaten ginen eta egunero bezala, haurrak etxetik etortzen zirenean, gelara sartu baino lehen, eskuak garbitzen zituzten.

Psikomotrizitate gelan, beste saioetan bezala, lehenengo hurrek berokiak eta zapatak kendu zituzten eta bankuan eseri ziren. Irakasleak ea nor faltatzen zen galdetu zien ikasleei, arauak erreparatu zituzten eta nola sentitzen ziren galdetu zien. Goian komentatutako arau berdinak erabiltzen zituzten, hots:

- Ez oihukatzea.
- Besteei minik ez egitea.
- Korrika ez egitea.
- Besteei materiala ez kentzea.

Baita irakasleak psikomotrizitate gelan zer egingo zuten ere azaldu zien.

Koronabirusa zela eta, ekintzak moldatu behar izan zituzten, haurrek ahalik eta material gutxien erabiltzeko eta euren artean ahalik eta kontaktu gutxien izateko. Adierazkortasun motorrerako eta adierazkortasun plastiko eta grafikorako espazioak ez zeuden, lehen aipatutako materiala, hau da, kuxin zilindrikoak, koltxonetak, tatamia, horma-barrak, oihalak, panpinak, plastilina..., ez zituzten erabiltzen (3. eranskina). Bestalde, jarduera gehienak gidatuak ziren, eta horiek ez zuten kontaktu fisikoa eskatzen.

Kasu honetan, irakasleak danborra atera zuen eta haurrak irakasleak danborrarekin jotzen zuen erritmora ibili behar ziren gelan zehar. Arin jotzean, umeak azkar ibili behar ziren gelan; mantso jotzean, aldiz, poliki. Irakasleak danborra jotzen ez zuenean, umeak geldi egon behar ziren.

Ondoren, irakasleak hurrei binaka jartzeko esan zien eta bikote bakoitzari pilota bana eman genien. Umeak gela osoan zehar sakabanatu ziren, eta irakasleak hainbat ariketa proposatu zizkien: lurretik pasatzea, botearekin, airez, eskuineko eskuarekin, ezkerreko eskuarekin, etab. Hori egiten bukatu zutenean, haurrak libreki jolasten egon ziren.

Gelara joateko 15 minutu geratzen zirenean, haurrak gelaren erdian etzan ziren, buruz gora, eta irakasleak argiak itzali eta musika lasai bat ipini zuen. Haurrek begiak itxi zituzten eta irakaslea eta nik aurpegian masaje bat eman genien.

Azkenik, haurrek arropak eta oinetakoak jantzi zituzten, irakaslea eta nik behar zutenei, laguntza eskaini zien, eta horiek ilaran jarri ziren gelara joateko. Ilaran, irakasleak klasera heltzean, bakoitzak zeukan ur-botilatik ura edateko, koronabirusa zela eta, umeek iturritik ezin zuten ura edan, eta komunera eskuak garbitzera joateko gogorarazi zien.

Irakaslearen jarrerari dagokionez, horrek aurretik aipatutako modu berean jokatu zuen; hots, laguntza behar zutenei, lagundu zien, haurrak behatu zituen, materiala ateratzeaz eta jasotzeaz arduratu zen; haurrak animatu zituen, gatazkak konpontzen lagundu zien, etab. Horrez gain, haurrek ekintzetan zer egin behar zuten jakiteko, berak lehenengo egiten zuen. Bestetik, irakasleari eta hurrei behar zuten guztian lagundu nien, hau da, irakasleari materiala banatzen eta jasotzen lagundu nion, hurrei egin behar zutena azaldu nien... Baita haurrak ere behatu nituen, gatazkak konpontzen lagundu nien, ariketak

proposatu nizkien eta ekintzetan parte hartzera animatu nituen. Saio guztietan, nire esku-hartzea berdina izan zen.

8.6. Seigarren saioa Covid-19a ondoren

Esan beharra dago, saio guztiek egitura bera zutela.

Borobilean, irakasleak zer egingo zuten umeei azaldu baino lehen, aurreko saioari buruz hitz egin genuen, irakasleak umeei zer gustatu zitzaien gehien egitea eta zer gutxien galdetu zien.

Umeak horman kokatu ziren eta irakasleak beste aldera proposatzen zuen moduan desplazatu ziren:

- Oin-puntetan ibiliz.
- Orpoen gainean.
- Lau hanketan.
- Irristatuz.
- Hanka baten gainean.
- Korrika.
- Bi hankak elkartuta salto eginez.
- Atzeraka.
- Zaldiak bezala.
- Pauso handiak emanaz.

Hori eta gero, irakasleak gelaren erdian uztaiak lurrean jarri zituen, ilaran, eta haurrak ere ilaran horien alboan ipini ziren. Horiek uztaien ilara alde batetik bestera pasatu behar zuten eta irakasleak nola pasatu behar ziren esaten zien aldi bakoitzean:

- Sigi-sagan ibiliz.
- Oinak elkartuta, saltoka.
- Oin-puntetan.
- Atzeraka.
- Igelak bezala.

8.7. Zazpigarren saioa Covid-19a ondoren

Kasu honetan ere, irakasleak egingo genuena azaldu baino lehen, aurreko saioari buruz hitz egin genuen, umeei zer gustatu zitzaien gehien egitea eta zer gutxien komentatu zuten.

Irakasleak paretara joateko eskatu zien umeei eta gela nola zeharkatu behar zuten esan genien:

- Atzerantz ibiliz.
- Saltoka.
- Pauso handiak emanaz.
- Pauso txikiak emanaz.
- Hanka baten gainean ibiliz.
- Lau hankatan.
- Bi hankak elkartuta salto eginez.
- Karramarroak bezala ibiliz.
- Kukubilka.
- Korrika.

Ondoren, gelaren erdian bankuak ipini genituen, bata bestearen jarraian. Haurrak ilaran horien alboan jarri ziren eta irakasleak bankuen gainetik nola pasatu behar ziren esaten zien aldi bakoitzean:

- Ibiltzen.
- Lau oinetan.
- Lateralki.
- Atzeraka.

Gauza bakoitza bi aldiz egin genuen.

8.8. Zortzigarren saioa Covid-19a ondoren

Oraingo honetan ere, haurrak horman kokatu ziren eta irakasleak bi erritmo entzungo zituztela esan zien. Irakasleak tresna arin jotzean, umeak ipotxak bezala ibili behar ziren gelatik zehar; mantso jotzean, berriz, erraldoiak bezala. Danborra entzuten ez zenean, haurrak geldi egon behar ziren.

Horren ostean, lehenengo egunean bezala, irakasleak hurrei binaka jartzeko eskatu zien eta bikote bakoitzari pilota bana eman genien. Irakasleak umeei gelatik sakabanatzeko eskatu zien, eta horiek goian komentatutako ariketak egin zituzten, hau da, bata besteari pilota lurretik pasatu zioten, airez, eskuineko eskuarekin, ezkerreko eskuarekin... Hori egiten bukatu zutenean, aurrekoan bezala, hurrek nahi zutenera jolastu zuten.

Lehen esan bezala, saioak ordu batekoak ziren. Gutxi gorabehera, lehenengo faseak 10 minutu irauten zuen, bigarrenak, 35 minutu, hirugarrenak, 10 minutu, eta azkenak, 5 minutu.

9. Konparaketa

Lehenik eta behin, koronabirusa baino lehenagoko praktika aurretik aipatutako teoriarekin lotuko dut. Ondoren, lehenengo eta oraingo saioak alderatuko ditut.

Aucouturierrek (2011) proposatutako sei faseetatik irakasleak lau betetzen zituen, hau da: sarrera-errituala, adierazkortasun motorraren fasea, adierazkortasun plastiko eta grafikoaren fasea eta irteera-errituala. Vizcarrak (2007), ordea, zehaztutako bederatzi ataletatik irakasleak bost lantzen zituen, zehazki, harrerako atala, atal oldartsua, berezko jardura motrizaren atala, irudikatze eta mintzatze fasea eta agurrerako atala. Dena den, esan beharra dago adituek zehaztutako faseak ez zirela zehatz-mehatz betetzen.

Hasieran, haurrak bankuan zeudenean, berokiak eta oinetakoak kendu ondoren, irakasleak ea norbait falta zen galdetzen zien, arauak erreparatzen zituzten eta umeek nola sentitzen ziren esaten zuten. Batzuetan, irakasleak zertara jolastuko zuten ere galdetzen zien ikasleei, edo hurrek egindako ekintza berriak aipatzen zituen, horien izena esan gabe, eta umeak besteekin eta jolas horietara jolastera animatzen zituen. Irakasleak edo ume batek hirura arte zenbatzen zuen gero, eta hurrek ziztu bizian dorrea botatzen zuten, jolas libreari hasiera emanez; zenbaitetan ume batzuek dorrea botatzeko aukerarik ez zuten izaten, kasu horietan, irakasleak haientzat dorre batzuk ere eraikitzen zituen. Jarraian, irakasleak azkenengo espaziora igarotzeko eskatzen zien hurrei, bertan haurrak bankuetan eseri ahal ziren, erosoago egoteko, eta irakasleak batzuetan plastilina, egurrezko blokeak edo orriak banatzen zizkien. Umeek plastilina edo egurrezko blokeen bidez saioan bizitakoa adierazten zuten; beste batzuetan, aldiz, horiek saioan bizitakoa marrazten zuten. Haurrak hori egiten zeuden bitartean, irakasleak gela jasotzen zuen eta hurrengo talderako dorrea eraikitzen zuen. Horren ostean, hurrekin elkartzeko zen eta ikasleak bizitako esperientzia kontatzera animatzen zituen. Azkenik, hurrek arropak eta zapatak janzten zituzten, irakasleak laguntza behar zutenei, laguntzen zien, eta horiek prest zeudenean, ilaran jartzen ziren gelara joateko. Ilaran, irakasleak klasera sartu baino lehen komunera ura edatera joateko gogorarazten zien.

Haurrak astean behin ordu betez psikomotrizitate gelara joaten ziren, beraz, Aucouturierrek (2011) proposatutakoa betetzen zen. Bestetik, Aucouturierrek (2011) ere irakasle bakoitzeko hamar ume egotea proposatzen zuen, eta hori ordea, ez zen betetzen, bertara irakaslea eta 24 ume joaten baitziren.

Materialari dagokionez, hurrek material ugari zuten eskura, eta hori umeen gaitasunetara egokituta zegoen. Horrez gain, aipatu beharra dago material gehienak helburu jakin bat ez zuela. Bestalde, Aucouturierrek (2011) aipatutako materialarekin alderatuta,

hurrengo materiala faltatzen zen. Alde batetik, adierazkortasun motorrerako espazioari dagokionez, arbela, armairuak, sokak, aparrezko pilotak, uztaiak, zurezko makilak, ontziak eta perkusio-tresnak, eta beste aldetik, adierazkortasun plastiko eta grafikorako espazioari dagokionez, mahaiak, aulkiak, errotulkiak eta arkatzak.

Vizcarrak (2007) eta Pachecok (2015), berriz, proposatutako materialarekin alderatuz gero, adierazkortasun motorrerako espaziorako hurrengo materiala faltan bota dut: tutuak, puxikak, birziklatzeko materiala, suediar eserlekuak, igotzeko sokak, gurpilak, egurrezko takoak, goma elastikoak, pikak eta arrapalak.

Bestalde, Aucouturierrek (2011), goian aipatu den bezala, psikomotrizitate gela bi espaziotan banatzen du, eta ikastetxeak ere aretoa bi espaziotan planteatzen zuen; alde batetik, adierazkortasun motorrerako espazioa zegoen, eta bestetik, adierazkortasun plastiko eta grafikorako espazioa, hain zuzen ere.

Jarraitzeko, aretoak Aucouturier (2011) eta Pachecok (2015) zehaztutako funtsezko baldintza batzuk betetzen zituen. Alde batetik, aretoa jarduerak egiteko prestatuta zegoen, eta bertan haurrek eboluzionatzen zuten. Horrez gain, leku argitsua eta garbia zen eta ongi zaindua zegoen. Beste aldetik, toki epela, atsegina, eroso eta zabala zen, oztoporik gabekoa, hori dela eta, umeak askatasun osoz mugitu ahal ziren.

Hortaz, teoria eta praktikaren artean ezberdintasun handirik ez zegoela argudia daiteke. Aitzitik, aretoan apaingarririk ez egotea faltan bota dut, beraz, esan daiteke gela ez zela guztiz erakargarria alde horretatik.

Irakaslearen rolari dagokionez, irakasleak zenbait adituen hitzak kontuan hartzen zituen. Irakasleak haurrak behatzen eta entzuten zituen, eta umea jolasean laguntzen edo zuzentzen zuen, ez zen horren jolasean sartzen. Horrez gain, irakasleak egin zutenari buruz ere galdetzen zien, betiere haurrek egindakoa baloratu gabe. Bestalde, Aucouturierekin (2011) hainbat puntuetan bat egiten zuen: hurrengan sinestea, errespetuzko eta konfiantzazko giroa bultzatzea, inor ez epaitzea; hurrenganako sentimendu positiboa izatea, alegia, irakasleak begirada eta jarreraren bitartez haiekin egotea atsegin zuela adierazten zuen; begirada periferikoa izatea; hurrei segurtasuna ematea. Esan bezala, irakasleak begirada periferikoa zuen, umeen ekintzei eta umeen arteko harremanei zegokienez, arretatsu jokatzeko zuen. Batzuetan, ikasleei gatazkak konpontzeko irtenbideak bilatzen laguntzen zien, horiek arazoa konpontzen ez zutelarik ikusten zuenean. Azkenik, Beñaranez (2017) irakasleak lege-segurtasun figura izateko gaitasuna izan behar duela esaten du, eta irakaslea horrela jokatzeko saiatzen zen; haurrari neurritsua izaten eta egituratzen laguntzen zion.

Laburbilduz, irakasleak teoria aintzat hartzen zuen eta nahiz eta arlo honetan espezialista ez izan, saioa aurrera eramateko gai zen, giro aproposa bultzatzen zuen, bere eginkizuna zein zen argi zeukan eta erantzun egokiak ematen zituen.

Egoera berri honetan, saioak oso desberdinak dira lehengo saioekin konparatuz gero. Irakasleek jarduerak moldatu behar izan zituzten, umeei ahalik eta material gutxien erabiltzeko eta euren artean ahalik eta kontaktu gutxien izateko. Lehen komentatutako faseetatik, irakasleak bakarrik bi betetzen zituen, sarrera-errituala eta irteera-errituala, hain zuzen ere. Dena den, esan beharra dago atal bakoitzean desberdintasunak egon zirela. Umeei arropak eta oinetakoak kendu ostean, horiek bankuan zeudenean, irakasleak ea nor faltatzen zen galdetzen ziren, betiko arauak birpasatzen zituzten eta haurrek nola sentitzen ziren esaten zuten. Baita batzuetan irakasleak psikomotrizitate gelan zer egingo zuten ere azaltzen ziren ikasleei, edo aurreko saioari buruz hitz egiten genuen, eta umeei zer gustatu zitzaie gehien egitea komentatzen zuten. Amaieran, haurrek berokiak eta zapatak janzten zituzten, irakaslea eta nik behar zutenei, laguntza eskaintzen genien, eta horiek ilaran zeudenean, irakasleak gelara iritsi bezain laster, bakoitzak zeukan ur-botilatik ura edateko gogorarazten ziren. Goian aipatu den bezala, haurrek koronabirusa zela eta, iturritik ezin zuten ura edan lehen egiten zuten bezala.

Sarrera-errituala eta gero, aurretik komentatu den bezala, irakasleak hainbat ariketa proposatzen zizkien ikasleei eta haurrek horiek modu indibidualean egiten zituzten. Materialari dagokionez, irakasleak batzuetan danborra erabiltzen zuen; beste batzuetan, pilotak, uztaiak, bankuak, etab. Batzuetan, amaieran, hurrei libreki jolasten ere uzten ziren. Haurrek arropak eta zapatak ipini baino lehen, lurlean etzaten ziren eta irakasleak horiek erlaxatzeko musika lasai bat jartzen zuen. Umeei begiak ixteko eskatzen genien, eta haur bakoitzari aurpegian masaje bat ematen genion.

Psikomotrizitate gela ez zegoen bi espaziotan banatuta lehen bezala, adierazkortasun motorrerako eta adierazkortasun plastiko eta grafikorako espazioak ez zeuden, eta haurrek ez zuten hasieran dorrea botatzen ere ez. Gelaren izkina batean, erabili ezin zen material guztia zegoen: koltxonetak, kuxinak, oihalak, panpinak, aparrezko hodiak... Horma-barrak ere ezin ziren erabili, azpian koltxonetarik ez baitzegoen.

Aretoa iazkoaren berdina zen, eta lehen komentatutako ezaugarri berdinak zituen; hots, ekintzak egiteko prestatuta zegoen, haurrek garatzeko eta eboluzionatzeko erabiltzen zen, leku argitsua eta garbia zen; ongi zaindua zegoen; zabala zen, oztoporik gabekoa,

beraz, umeak libreki mugitu ahal ziren; etab. laz bezala, aretoan ere ez zeuden apaingarririk, hortaz, gela ez zen oso erakargarria ere ez.

Irakasleari dagokionez, irakasleak koronabirusa ez zegoenean jokatu zuen modu berean jokatu zuen oraingo honetan ere. Horrek umeak behatzen eta entzuten zituen, ikasleak zenbaitetan jolasean laguntzen edo zuzentzen zituen, betiere errespetu osoz, eta horien jolasean parte hartu gabe, umeengan sinesten zuen; ez zuen inor epaitzen; haurrenganako sentimendu positiboa eta begirada periferikoa zuen... Esan beharra dago, irakasleak ere ez ohiko egoera horretan haurrak eroso, gustura eta motibatuta sentitzeko eta horiek garatzeko ahalegin handia egin zuela. Egunero ariketa desberdinak planteatzen zituen, materialaren aldetik, berritzen saiatzen zen, umeak jarduerak egitera animatzen zituen, etab.

Laburbilduz, irakaslea saioak aurrera eramateko kapaza zen, konfiantzazko, errespetuzko eta segurtasunezko giroa bultzatzen zuen...

| Saioak Covid-19 aurretik | Saioak gaur egun |
|--|---|
| Lau fase betetzen ziren; sarrera-errituala, adierazkortasun motorraren fasea, adierazkortasun plastiko eta grafikoaren fasea eta irteera-errituala. | Lau fase ezberdin betetzen dira; sarrera-errituala, adierazkortasun motorraren fasea (kasu honetan, beste jarduera batzuk proposatzen ziren), erlaxazioko momentua eta irteera-errituala. |
| Jolas librea | Jolasak gidatuak dira; irakasleak alde zuzenetik prestatuak ditu. Umeei ezin dute materiala erabili eta ezin dira elkarrekin egon. |
| Ikasleek materiala libreki hartzeko aukera zuten. | Ikasleek ezin dute materiala ukitu . Irakasleak espazioan jarritako materiala umeei ezin dute manipulatu. |
| Kontaktu fisikoa eskatzen zuten jarduerak ziren. | Kontakturik gabeko jarduerak proposatzen dira. |
| Adierazkortasun plastiko eta grafikoaren fasea betetzen zen. Haurrek marrazkiak egiten zituzten, eta plastilina eta egurrezko blokeak erabiltzen zituzten. | Ez da fase hau betetzen ; horren ordez, haurrak erlaxatzeko jarduera proposatzen da. |
| Arau orokorrak (besteei minik ez egitea, besteei materiala ez kentzea...) | Arau espezifikoak (gelara sartu baino lehen eta ondoren, eskuak garbitu) |
| Irakasleak umeei psikomotrizitate gelan egingo zutena ez zien esaten, baina bai horiek elkarrekin jolastera , elkarrekin jarduerak egitera animatzen zituen. | Irakasleak haurrei aretoan zer egingo duten komentatzen die. Banakako jarduerak primatzen dira. |

10. Ondorioak

Hasteko, esan beharra dago irakasleak une oro bere papera zein zen eta saioak aurrera nola eraman bazekiela. Aipatu bezala, irakaslea arlo honetan ez zen espezialista, baina irakaskuntzan esperientzia handia zeukan, eta hori dela, momentu zehatzetan zer egin bazekien, erantzun egokiak ematen zituen... Horrez gain, gai honi buruzko formakuntzetan batzuetan parte hartzen zuen eta hortaz, psikomotrizitate saioak emateko oso prestatuta zegoen.

Hala ere, beste jarduera batzuk ere planteatu zitezkeen, eta kasu horietan ere haurren interesak eta motibazioak eta horien gaitasunak eta beharrak kontuan hartuko ziren. Koronabirusa baino lehengoko saioei dagokienez, esaterako: zirkuitu bat, oreka, koordinazioa, lateralitatea, jauziak, birak, jaurtiketak... lantzeko ariketak, gorputz-adierazpena jorrazteko jarduerak, etab.

Beste aldetik, goian esan bezala, koronabirusa zela eta, hurrek ahalik eta material gutxien erabili behar zuten, koltxonetak, kuxinak, panpinak... kasu honetan ez ziren erabiltzen, gela horretara ere beste geletako ikasleak joaten zirelako, eta beraz, kutsadurak saihesteko. Hortaz, hori kontuan izanda eta baita ere haurrak euren artean ahalik eta kontaktu gutxien izan behar zutela, irakasleak proposatutako ariketak aproposak eta interesgarriak iruditu zitzaizkidan. Ikasleek ekintzetan gogotsu parte hartu zuten eta horiek beren gaitasun batzuk garatu zituzten. Hala ere, jolas sinbolikoa ere landuko nuke, lehen komentatu den bezala, etapa honetan, jolas sinbolikoa oso garrantzitsua delako, eta gorputz-adierazpena jorrazteko beste jarduera batzuk ere proposatuko nituzke.

Kutsadurak ere saihesteko, leihoak askotan irekitzen genituen eta atea beti zabalik zegoen. Dena den, batzuetan zaratak entzuten ziren eta hurrek arreta galtzen zuten. Bestalde, gelan musukoarekin egotea ez zen erraza izan, 6 urtetik beherako hurrek ez zuten derrigorrez eraman behar, baina gehienek hasieratik hori eramaten zuten eta amaieran, gutxi batzuk izan ezik, gehienek ere kentzen zuten. Musukoarekin komunikazioa zaila zen, elkar ulertzeko bai hurrek zein guk altuago hitz egin behar genuen, elkarri aurpegia ez genion ikusten, arnasteko ere oso nekagarria zen, etab. Dena den, egoera honi esker, gorputzaren eta keinuen bidez komunikatzeko gaitasuna, askotan lantzen ez dena, landu dugu.

Beraz, nahiz eta aurtengo egoera oso zaila izan, irakasleak ahal izan zuen guztia egin zuen eta horrek egindako esfortzua dena ondo ateratzeko nabarmendu behar da. Irakasleak hartutako erabakiak, baita koronabirusa baino lehen hartu zituenak ere, egokiak izan ziren, hurrek hainbat gaitasun eskuratu zituztelako eta horiek jardueretan gustura aritu

zirelako, beste gauza batzuk egin ahal ziren arren. Orokorrean, goian aipatu den bezala, praktikaldian ikusitakoa bat dator teoriarekin. Hala ere, psikomotrizitateari ematen zaion baino garrantzi gehiago eman ahal zaiola uste dut.

Jarraitzeko, nahiz eta egoera berezia izan, aitortu nahi dut saioak hain desberdinak izatea lehengokoekin konparatuta ez nuela espero. Musukoarekin egon behar zenez, apenas materialik ezin zenez erabili eta gure artean ahalik eta kontaktu gutxien izan behar genuenez, saioak hain hotzak izatea pena bat zen. Ikastetxera joan baino lehen, psikomotrizitate saioak Covid-19a baino lehen nolakoak ziren eta orain nola antolatzen zituzten analizatzea eta alderatzeaz gain, haur batzuen eboluzioa ere behatu nahi nuen, baina hori ezin izan nuen egin, jarduerak gidatuak zirelako eta ume guztiek berdina egiten zutelako.

Bukatzeko, aurten, lehen aipatu den bezala, egoera oso ezberdina izan da, eta haurrek beren gaitasun batzuk eskuratzeko ez dute aukerarik izan. Hezkuntza psikomotorrak hainbat onura ematen ditu eta Elizabeth Hurlockek horri buruz esandakoa Pachecok (2015) bere liburuan biltzen du:

- Osasuna sustatzen du: zirkulazioa eta arnasketa estimulatzen ditu, zelulen nutrizio hobea eta hondakinen deuseztapena bultzatuz. Hezurak eta giharrak ere indartzen ditu.
- Osasun mentala sustatzen du: trebetasun motorren garapenak eta kontrolak haurrak gai sentitzea ahalbidetzen du; gogobetetzea ematen du eta tentsio edo emozio indartsuak askatzen ditu. Nork bere buruarengan duen konfiantzak autokontzeptuan eta autoestimuan laguntzen du.
- Jarduera propioak egiteko haurren independentzia bultzatzen du.
- Sozializatzen laguntzen du, beste hurrekin jolasak partekatzeko behar diren trebetasunak garatzen baititu.

Díaz eta Quintanak (2016) adierazten duten bezala, psikomotrizitateak, metodologia ireki, dinamiko eta malgu batekin batera, eta giza baliabide eta baliabide material egokiekin (ingurunea, espazioa eta denbora) batera, haurrek beren gorputza mugimenduan ezagutzeko eta esperimentatzeko duten gaitasuna indartuko du, beren burua eta inguratzen dituen mundua ezagutzeko, komunikazioa deskubritzeko, sinbolismoa eskuratzeko eta beharrezkoak diren tresnak eskuratzeko. Bestetik, motrizitatearen bidez, haurrak bere nortasuna garatzeko eta eraikitzeko, heldutasuna, harmonia, autokontzeptu positiboa eta autoestimua lortzen ditu (Gil, 2003; Gil, Gómez, Contreras eta Gómez, 2008; Cuesta, Prieto eta Gil, 2016; eta Arufe, 2020).

11. Hobekuntza proposamenak

Aurretik esandako guztia kontuan hartuta, nire proposamena argia da eta honako hau da:

- Lehenik eta behin, psikomotrizitate gela erakargarriagoa izateko mural bat egotea beharrezkoa ikusten dut. Aurreko praktiketako eskolek gelan mural bat zuten eta horrek haurren arreta erakartzen zuen. Ikasleei murala egiteko aukera eman ahal zaie, eta horrez gain, gela margotzea ere ezinbestekoa ikusten dut. Bukatzeko, aretoan apalak egotea garrantzitsua zela ere iruditzen zait, era horretan, haurrek beraien lanak gordeko zituzten.

- Beste aldetik, irakasleek sarritan gaiarekiko formakuntza eta prestakuntza jasotzea ezinbestekoa iruditzen zait, psikomotrizitateak Haur Hezkuntzan berebiziko garrantzia duelako, aurretik aipatutako arrazoiengatik. Modu honetan, irakasleek psikomotrizistekin zalantzak argitu ditzakete, gai honen inguruan gauza gehiago jakin, beste irakasleen iritziak kontuan hartu, etab.

- Aurretik esan den bezala, koronabirusa ez zegoenean, beste jarduera batzuk ere planteatu zitezkeen. Gelan zegoen materialarekin banaka edo taldeka egin zitezkeen ekintza desberdinak proposatu ahal ziren, esaterako, zirkuituak, jauziak, koordinazioa, oreka... lantzeko ariketak, etab. Bestalde, gorputz-adierazpena ipuin motorraren, musikaren bitartez... landu ahal zen, esaterako, haurrak danborraren erritmora, musikaren erritmora... mugitu zitezkeen. Dantza eta koreografia errazak landu ahal ziren, hori umeekin gutxitan egiten den ekintza baita.

- Materialari dagokionez, umeei beste material batzuk ere erabili ahal zituzketen, esate baterako: sokak, aparrezko pilotak, uztaiak, zurezko makilak, tutuak, gurpilak, arrapalak... Bestetik, gelan aparrezko hodi, oihal, zapi... gehiago ere egon ahal ziren. Modu honetan, irakasleak hurrei hainbat materialekin esperimendatzeko, manipulatzeko eta jolasteko aukera emango die eta horien jakin-mina eta sormena sustatuko du. Horrez gain, umeen interesen eta beharren arabera, txokoak behin eta berriro ere antolatuko nituzke.

- Covid-19aren aurreko saioetan, hizkuntza bidezko segurantzaren sakonaren fasea (istorioa) ere betetzea garrantzitsua zela ikusten dut. Alegia, saioaren erdian edo amaieran, irakasleak umeei euren egunerokotasunarekin zerikusia duen istorio laburra kontatuko die. Horrez gain, irakasleak Aucouturierrek (2011) proposatzen dituen bi erregistroak, alegia, larrimina handitzea eta segurantzaren oinarrietara itzultzea ere kontuan hartuko ditu. Ezaugarri horiek dituzten ipuinen artean aurkitzen dira, adibidez: *Sorgina Kirris Karras* (Meroto, 2017), *Amets gaizto nire armairuan* (Mayer, 2020), etab.

- Gaur egun, hurrek beste geletako hurrekin ezin dute materiala konpartitu eta euren artean ahalik eta kontaktu gutxien izan behar dute. Goian esan bezala, irakasleak proposatutako jardueraz gain, jolas sinbolikoa ere jorratuko nuke, jolas sinbolikoak haurraren garapenean funtzio garrantzitsua betetzen duelako, eta beraz, landu behar den ekintza delako. Psikomotrizitate gelan kutxa batzuk egongo ziren material ezberdinez beteta eta gela bakoitzak berea izango zuen. Kutxetan bost material ezberdin egongo ziren, irakaslea umeen interesen eta beharren arabera, hori aldatzen joango zen. Adibidez: tutuak, kartoizko kutxak, sokak, oihalak, aparrezko hodiak... Era horretan, kutsadurak saihestuko ziren denek ez zutelako material berdina erabiliko, eta jolasteko ohiko gelan, txokoetan, erabiltzen diren taldeak erabiliko ziren; astero horiek material ezberdina erabiliko zuten. Modu honetan, hurrek irudimena, sormena, ekimena... ere landuko zituzten.

- Bestalde, gorputz-adierazpena dantza eta koreografia errazen bidez ere landu daiteke, eta baita adierazkortasun plastiko eta grafikoaren fasea ere kontuan hartuko nuke. Modu honetan, hurrekin askotan egiten ez den ekintza praktikatu da eta umeek gutxienez saioan bizitzakoa marrazkien bitartez adieraziko dute. Haur bakoitzari orri bat emango zaio eta ikasle bakoitzak, ohiko gelan bezala, aretoan bere estutxea erabiliko du, besteekin arkatzak, margoak... ez konpartitzeko. Bestalde, hizkuntza bidezko segurantzaren sakonaren fasea (istorioa) ere betetzea funtsezkoa zela iruditzen zait.

- Jarraitzeko, gelan bi irakasle egotea ezinbestekoa zela uste dut. Horrek lana errazten du, aldi berean, beste ikuspuntu bat edukitzea errazten du, eta ikasleei eskaintzeko denbora gehiago dago. Beste aldetik, saioen iraupena eta asteko saio kopurua ere handituko nituzke. Saioak 80 minutu irautea eta psikomotrizitate gelara astean birritan joatea beharrezkoa dela iruditzen zait. Era honetan, Aucouturierrek (2011) proposatutako faseei denbora gehiago eskainiko zaie, eta hurrei askatasunez adierazten diren lekura berriro joateko aukera emango zaie.

- Horrez gain, umeekin korroan hitz egiterakoan, horiek formulatutako galderari orokorrean erantzun beharrean, banan-banan erantzuteko aukera eman behar zaiela uste dut, haurrak protagonistak sentituko direlako eta irakasleak ikasleak ezagutzeko aukera izango duelako. Baita egunero Aucouturierren (2011) metodologia jarraituz, saioaren nondik norakoak azaltzea eta aurreko saioak gogoratzea, hurrek zer gustatu zitzaien eta zer ez adieraziko zuketean, ere garrantzitsua zela ikusten dut.

- Azkenik, Azkenik, bi kasuetan, irakasleak saio bakoitzaren amaieran, bere burua eta baita haurrak ere ebaluatzeko taularik ez zuen betetzen. Haurraren garapena eta

eboluzioa ikusteko, eta horrek moldaketak egiteko, irakasleak saio bakoitzaren amaieran behaketa taulak betetzea funtsezkoa iruditzen zait.

12. Erreferentziak

- Aucouturier, B. (2004). AUCOUTURIER, Bernard: elkarrizketa. *Hik Hasi*, 84, 14-21. Berreskuratua: http://www.hikhasi.eus/uploads/erab_1/2004/01/1498220262-084.%20alea.pdf
- Aucouturier, B. (2011). *Aucouturier metodoa: ekintza-fantasmak eta praktika psikomotorra*. Euskal Herriko Unibertsitatea: Argitalpen Zerbitzua.
- Anduaga, O. (2019). Eta zuk, zer garrantzi ematen diozu psikomotrizitateari?. (Gradu Amaierako Lana). Euskal Herriko Unibertsitatea. Berreskuratua: https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/42050/TFG_Anduaga.pdf?sequence=2&isAllowed=y
- Arufe, V. (2020). ¿Cómo debe ser el trabajo de Educación Física en Educación Infantil? Retos, 37, 588-596. Berreskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=7243324>
- Beñaran, A. (2010). Haurren beharretara egokitu behar dugu; psikomotrizitate saioa ez da sakratua. *Hik Hasi*, 150. Berreskuratua: <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20100701/benaran-alvaro-haurren-beharretara-egokitu-behar-dugu-psikomitrizitate-saioa-ez-da-sakratua>
- Beñaran, A. (2017). Pedagogo sortzaileak: Bernard Aucouturier. *Hik Hasi*, 215, 30-34. Berreskuratua: http://www.hikhasi.eus/uploads/erab_1/2017/02/1518591886-215.hh-oso.pdf
- Camps, C. (2008). La observación de la intervención del psicomotricista: actitudes y manifestaciones de la transferencia. Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado, 62 (22,2), 123-154. Berreskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2707410>
- Cuesta, P., Prieto, A., eta Gil, P. (2016). Evaluación diagnóstica en la enseñanza conjunta de habilidades sociales y motrices en Educación Infantil. Opción, 32 (7), 505-525. Berreskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5916884>
- Díaz, R., eta Quintana, A. (2016). Percepción de los profesores sobre la importancia de la psicomotricidad en educación infantil. Acción motriz, 17, 7-20. Berreskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6324706>
- Font, C. (2009). Lasaitasun eta segurtasun fisikoa eta afektiboa ematen duen espazioa eskaintzen badugu, haurrak diren eran azalduko dira. *Hik Hasi*, 134. Berreskuratua: <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20090101/font-carles-lasaitasun-eta-segurtasun-fisikoa-eta-afektiboa-ematen-duen-espazioa-eskaintzen-badugu-haurrak-diren-eran-azalduko-dira>

- Gallardo, J. A. eta Gallardo, P. (2018). Teorías sobre el juego y su importancia como recurso educativo para el desarrollo integral infantil. *Revista Educativa Hekademos*, 24, 41-51.
- Gil, P. (2003). Desarrollo psicomotor en Educación Infantil (0-6 años). Sevilla: Wanceulen.
- Gil, P., Gómez, S., Contreras, O., eta Gómez, I. (2008). Justificación de la educación física en la educación infantil. *Educación y educadores*, 11(2), 159-177.
- Hik Hasi, editoriala, (2015). Mugimendutik pentsamendura. *Hik Hasi*. Berreskuratua: <http://www.hikhasi.eus/Albistegia/20151007/psikomotrizitate-mugimendutik-pentsamendura>
- Madina, K. (2013). Psikomotrizitate-aretoak herritarrentzat. *Hik Hasi*. Berreskuratua: <http://www.hikhasi.eus/Albistegia/20130315/psikomotrizitate-aretoak-herritarrentzat>
- Mayer, M. (2020). *Amets gaizto nire armairuan*. Tafalla: Txalaparta.
- Meroto, T. (2017) *Sorgina Kirris Karras*. Tafalla: Txalaparta.
- Pacheco, G. (2015). Psicomotricidad en Educación Inicial. Quito, Ecuador: ISBN.
- Polentinos, J. C. (2006). Psikomotrizitatearen istorio txiki bat. *Jakingarriak*, 59, 30-37. Berreskuratua: <https://www.mondragon.edu/documents/20182/61440/jakingarriak-59.pdf/4546d411-b6f4-4106-aa37-5411ebb41ad8>
- Sánchez, J. eta Llorca, M. (2008). El rol del psicomotricista. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 62 (22,2), 35-60. Berreskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2707341>
- Santa María Marianistas Ikastetxea, (2017). Santa María Marianistas Ikastetxea. Berreskuratua: <https://www.marias-gasteiz.org/>
- Urresti, M. (2017). Psikomotrizitate erlazionala: Aukera berdintasunerako eta emozioen hezkuntza. *Hik Hasi*. Berreskuratua: http://www.hikhasi.eus/uploads/erab_1/2019/05/1557825009-Genero%20harreman%20psiko%20HIK%20HASI%202019-2020.pdf
- Vizcarra, M. T. (2007). *Garapen psikomotorra Haur Hezkuntzan (0-6 urte)*. Euskal Herriko Unibertsitatea: Argitalpen Zerbitzua.

13. Eranskinak

1. Eranskina: Irakaslea behatzeko taulak

❖ Lehenengo saioa Covid-19 aurretik

| | Bai | Batzuetan | Ez |
|---|-----|-----------|----|
| Behaketa eta entzumen gaitasuna | | | |
| Esku hartu baino lehen taldea behatzen du | | X | |
| Begirada periferikoa du | X | | |
| Taldeko haur desberdinekin komunikatu da | | X | |
| Jarduerak proposatzen ditu | | X | |
| Haurrek iniziatiba hartzen duten itzaroten du | | X | |
| Umeen jolasa bideratzen du | | X | |
| Ikasleei egiten uzten die, esku hartu gabe | X | | |
| Haurren eskakizunei erantzun egokia ematen dizkie | X | | |
| Jolas ezberdinetan parte hartzen du | | | X |
| Adierazkortasun psikomotriza | | | |
| Gustura sentitu da | X | | |
| Enpatia du | X | | |
| Bere gorputzaren adierazpen-baliabideak erabiltzen ditu | | | |
| - Begirada | X | | |
| - Hizkuntza (ahotsa/hitzak) | X | | |
| - Keinuak | | X | |

| | | | |
|--|---|---|---|
| - Mimika | | X | |
| - Objektuak | | | X |
| Taldearen segurtasuna mantentzea | | | |
| Haurrei segurtasuna ematen die | X | | |
| Autoritarioa da | | | X |
| Besteen aurrean haurrak barregarri uzten ditu | | | X |
| Permisiboa da | | | X |
| Jarrera tinkoa eta argia dauka | X | | |
| Zuhurra da | X | | |
| Ikasleei autorregulatzen laguntzen die | X | | |
| Haurren beharrezan arabera moldatzen da | X | | |
| Aurreratzen da, larritzen da | | | X |
| Hasierako erritualean duen esku hartzea | | | |
| Ordena eta isiltasuna mantentzen du | X | | |
| Saioan egingo dutenaren inguruan azalpenak ematen ditu | | | X |
| Umeei zertara jolastuko duten galdetzen die | X | | |
| Haurrei erabakiak hartzen laguntzen die | | | X |
| Arauk gogoratzen ditu | X | | |
| Saioa erritual batekin hasten da | X | | |
| Ekintza sentsorimotoreetan duen esku hartzea | | | |
| Segurantz sakoneko jolasak proposatzen ditu | | | X |

| | | | |
|---|---|---|---|
| Ziurtatzen du | | X | |
| Animatzen du | | | X |
| Laguntzen du | X | | |
| Proposatzen du | | | X |
| Eragozten du | | | X |
| Espazioa erabiltzen du | | | X |
| Imitatzen du | | | X |
| Jolas sinbolikoetan duen esku hartzea | | | |
| Rol bat hartzen du | | | X |
| Jolasak arrakasta izateko esku hartzen du | | | X |
| Komunikazioa sustatzen du. Umeei jolasaren inguruan galderak egiten dizkie | X | | |
| Jolasak proposatzen ditu | | | X |
| Espazioa eta materialak erabiltzen ditu (oihalak erabili, etxeak eraiki...) | | | X |
| Besteei errua botatzen die | | | X |
| Frustrazioa transmititzen du | | | X |
| Jolasa saihesten du | | X | |
| Adierazpen fasean duen esku hartzea | | | |
| Saioan bizitakoa marrazkien, plastilinaren edo egurrezko blokeen bidez adierazteko aukera ematen du | X | | |
| Haurrei zer egin duten galdetzen die | X | | |
| Ikasleek gaitasunak eskuratzeko galderak egiten dizkie | | | X |

| | | | |
|---|----------------|---|---|
| Parte hartu nahi ez duten ikasleak gonbidatzen ditu | X | | |
| Hitzezko eta gorputzezko adierazpenen bidez komunikatzen da | | X | |
| Araua ezartzen ditu | | | X |
| Irteerako erritualean duen esku hartzea | EZ DAGO | | |
| Umeak hasierako lasaitasunera itzultzen dira | | | |
| Saioan egin dena komentatzen du | | | |
| Ikasleen autonomia sustatzen du. Horiek materiala jasotzen dute | | | |
| Haurrei saioan egin dutenari buruz galdetzen die | | | |
| Saioa erritual batekin amaitzen da | | | |

❖ **Bigarren saioa Covid-19 aurretik**

| | Bai | Batzuetan | Ez |
|---|-----|-----------|----|
| Behaketa eta entzumen gaitasuna | | | |
| Esku hartu baino lehen taldea behatzen du | | X | |
| Begirada periferikoa du | | X | |
| Taldeko haur desberdinekin komunikatu da | | X | |
| Jarduerak proposatzen ditu | | X | |
| Haurrek iniziatiba hartzen duten itzaroten du | | X | |
| Umeen jolasa bideratzen du | | X | |
| Ikasleei egiten uzten die, esku hartu gabe | X | | |
| Haurren eskakizunei erantzun egokia ematen dizkie | X | | |
| Jolas ezberdinetan parte hartzen du | | | X |
| Adierazkortasun psikomotriza | | | |
| Gustura sentitu da | X | | |
| Enpatia du | X | | |
| Bere gorputzaren adierazpen-baliabideak erabiltzen ditu | | | |
| - Begirada | X | | |
| - Hizkuntza (ahotsa/hitzak) | X | | |
| - Keinuak | | X | |
| - Mimika | | X | |
| - Objektuak | | | X |

| | | | |
|--|---|---|---|
| Taldearen segurtasuna mantentzea | | | |
| Haurrei segurtasuna ematen die | X | | |
| Autoritarioa da | | | X |
| Besteen aurrean haurrak barregarri uzten ditu | | | X |
| Permisiboa da | | | X |
| Jarrera tinkoa eta argia dauka | X | | |
| Zuhurra da | X | | |
| Ikasleei autorregulatzen laguntzen die | X | | |
| Haurren beharrezan araber moldatzen da | X | | |
| Aurreratzen da, larritzen da | | | X |
| Hasierako erritualean duen esku hartzea | | | |
| Ordena eta isiltasuna mantentzen du | X | | |
| Saioan egingo dutenaren inguruan azalpenak ematen ditu | | | X |
| Umeei zertara jolastuko duten galdetzen die | | | X |
| Haurrei erabakiak hartzen laguntzen die | X | | |
| Arauk gogoratzen ditu | X | | |
| Saioa erritual batekin hasten da | X | | |
| Ekintza sentsorimotoretan duen esku hartzea | | | |
| Segurantz sakoneko jolasak proposatzen ditu | | | X |
| Ziurtatzen du | | X | |
| Animatzen du | | | X |

| | | | |
|---|---|---|---|
| Laguntzen du | X | | |
| Proposatzen du | | | X |
| Eragozten du | | | X |
| Espazioa erabiltzen du | | | X |
| Imitatzen du | | | X |
| Jolas sinbolikoetan duen esku hartzea | | | |
| Rol bat hartzen du | | | X |
| Jolasak arrakasta izateko esku hartzen du | | | X |
| Komunikazioa sustatzen du. Umeei jolasaren inguruan galderak egiten dizkie | | X | |
| Jolasak proposatzen ditu | | | X |
| Espazioa eta materialak erabiltzen ditu (oihalak erabili, etxeak eraiki...) | | | X |
| Besteei errua botatzen die | | | X |
| Frustrazioa transmititzen du | | | X |
| Jolasa saihesten du | | X | |
| Adierazpen fasean duen esku hartzea | | | |
| Saioan bizitakoa marrazkien, plastilinaren edo egurrezko blokeen bidez adierazteko aukera ematen du | X | | |
| Haurrei zer egin duten galdetzen die | X | | |
| Ikasleek gaitasunak eskuratzeko galderak egiten dizkie | | | X |
| Parte hartu nahi ez duten ikasleak gonbidatzen ditu | X | | |
| Hitzezko eta gorputzezko adierazpenen bidez komunikatzen da | | X | |

| | | | |
|---|----------------|--|---|
| Arauak ezartzen ditu | | | X |
| Irteerako erritualean duen esku hartzea | EZ DAGO | | |
| Umeak hasierako lasaitasunera itzultzen dira | | | |
| Saioan egin dena komentatzen du | | | |
| Ikasleen autonomia sustatzen du. Horiek materiala jasotzen dute | | | |
| Haurrei saioan egin dutenari buruz galdetzen die | | | |
| Saioa erritual batekin amaitzen da | | | |

❖ **Bosgarren saioa (pandemia egoeran)**

| | Bai | Batzuetan | Ez |
|---|-----|-----------|----|
| Behaketa eta entzumen gaitasuna | | | |
| Esku hartu baino lehen taldea behatzen du | X | | |
| Begirada periferikoa du | | X | |
| Taldeko haur desberdinekin komunikatu da | | X | |
| Jarduerak proposatzen ditu | | X | |
| Haurrek iniziatiba hartzen duten itzaroten du | | X | |
| Umeen jolasa bideratzen du | | X | |
| Ikasleei egiten uzten die, esku hartu gabe | X | | |
| Haurren eskakizunei erantzun egokia ematen dizkie | X | | |
| Jolas ezberdinetan parte hartzen du | | | X |
| Adierazkortasun psikomotriza | | | |
| Gustura sentitu da | X | | |
| Enpatia du | X | | |
| Bere gorputzaren adierazpen-baliabideak erabiltzen ditu | | | |
| - Begirada | X | | |
| - Hizkuntza (ahotsa/hitzak) | X | | |
| - Keinuak | | X | |
| - Mimika | | X | |
| - Objektuak | | | X |

| | | | |
|--|---|---|---|
| Taldearen segurtasuna mantentzea | | | |
| Haurrei segurtasuna ematen die | X | | |
| Autoritarioa da | | | X |
| Besteen aurrean haurrak barregarri uzten ditu | | | X |
| Permisiboa da | | | X |
| Jarrera tinkoa eta argia dauka | X | | |
| Zuhurra da | X | | |
| Ikasleei autorregulatzen laguntzen die | X | | |
| Haurren beharrezan arabera moldatzen da | X | | |
| Aurreratzen da, larritzen da | | | X |
| Hasierako erritualean duen esku hartzea | | | |
| Ordena eta isiltasuna mantentzen du | X | | |
| Saioan egingo dutenaren inguruan azalpenak ematen ditu | X | | |
| Umeei zertara jolastuko duten galdetzen die | | | X |
| Haurrei erabakiak hartzen laguntzen die | | | X |
| Arauk gogoratzen ditu | X | | |
| Saioa erritual batekin hasten da | X | | |
| Ekintza sentsorimotoretan duen esku hartzea | | | |
| Segurantz sakoneko jolasak proposatzen ditu | X | | |
| Ziurtatzen du | | X | |
| Animatzen du | X | | |

| | | | |
|---|----------------|--|---|
| Laguntzen du | X | | |
| Proposatzen du | X | | |
| Eragozten du | | | X |
| Espazioa erabiltzen du | X | | |
| Imitatzen du | X | | |
| Jolas sinbolikoetan duen esku hartzea | EZ DAGO | | |
| Rol bat hartzen du | | | |
| Jolasak arrakasta izateko esku hartzen du | | | |
| Komunikazioa sustatzen du. Umeei jolasaren inguruan galderak egiten dizkie | | | |
| Jolasak proposatzen ditu | | | |
| Espazioa eta materialak erabiltzen ditu (oihalak erabili, etxeak eraiki...) | | | |
| Besteei errua botatzen die | | | |
| Frustrazioa transmititzen du | | | |
| Jolasa saihesten du | | | |
| Adierazpen fasean duen esku hartzea | EZ DAGO | | |
| Saioan bizitakoa marrazkien, plastilinaren edo egurrezko blokeen bidez adierazteko aukera ematen du | | | |
| Haurrei zer egin duten galdetzen die | | | |
| Ikasleek gaitasunak eskuratzeko galderak egiten dizkie | | | |
| Parte hartu nahi ez duten ikasleak gonbidatzen ditu | | | |
| Hitzezko eta gorputzezko adierazpenen bidez komunikatzen da | | | |

| | | | |
|---|----------------|--|--|
| Arauak ezartzen ditu | | | |
| Irteerako erritualean duen esku hartzea | EZ DAGO | | |
| Umeak hasierako lasaitasunera itzultzen dira | | | |
| Saioan egin dena komentatzen du | | | |
| Ikasleen autonomia sustatzen du. Horiek materiala jasotzen dute | | | |
| Haurrei saioan egin dutenari buruz galdetzen die | | | |
| Saioa erritual batekin amaitzen da | | | |

❖ **Seigarren saioa (pandemia egoeran)**


| | Bai | Batzuetan | Ez |
|---|-----|-----------|----|
| Behaketa eta entzumen gaitasuna | | | |
| Esku hartu baino lehen taldea behatzen du | | X | |
| Begirada periferikoa du | X | | |
| Taldeko haur desberdinekin komunikatu da | | X | |
| Jarduerak proposatzen ditu | X | | |
| Hurrek inizatiba hartzen duten itzaroten du | | | X |
| Umeen jolasa bideratzen du | X | | |
| Ikasleei egiten uzten die, esku hartu gabe | | | X |
| Haurren eskakizunei erantzun egokia ematen dizkie | X | | |
| Jolas ezberdinetan parte hartzen du | | | X |
| Adierazkortasun psikomotriza | | | |
| Gustura sentitu da | X | | |
| Enpatia du | X | | |
| Bere gorputzaren adierazpen-baliabideak erabiltzen ditu | | | |
| - Begirada | X | | |
| - Hizkuntza (ahotsa/hitzak) | X | | |
| - Keinuak | | X | |
| - Mimika | | X | |
| - Objektuak | | | X |

| | | | |
|--|---|---|---|
| Taldearen segurtasuna mantentzea | | | |
| Haurrei segurtasuna ematen die | X | | |
| Autoritarioa da | | | X |
| Besteen aurrean haurrak barregarri uzten ditu | | | X |
| Permisiboa da | | | X |
| Jarrera tinkoa eta argia dauka | X | | |
| Zuhurra da | X | | |
| Ikasleei autorregulatzen laguntzen die | X | | |
| Haurren beharizanen arabera moldatzen da | X | | |
| Aurreratzen da, larritzen da | | | X |
| Hasierako erritualean duen esku hartzea | | | |
| Ordena eta isiltasuna mantentzen du | X | | |
| Saioan egingo dutenaren inguruan azalpenak ematen ditu | X | | |
| Umeei zertara jolastuko duten galdetzen die | | | X |
| Haurrei erabakiak hartzen laguntzen die | | | X |
| Arauk gogoratzen ditu | X | | |
| Saioa erritual batekin hasten da | X | | |
| Ekintza sentsorimotoretan duen esku hartzea | | | |
| Segurantz sakoneko jolasak proposatzen ditu | X | | |
| Ziurtatzen du | | X | |
| Animatzen du | X | | |


| | | | |
|---|----------------|--|---|
| Laguntzen du | X | | |
| Proposatzen du | X | | |
| Eragozten du | | | X |
| Espazioa erabiltzen du | X | | |
| Imitatzen du | X | | |
| Jolas sinbolikoetan duen esku hartzea | EZ DAGO | | |
| Rol bat hartzen du | | | |
| Jolasak arrakasta izateko esku hartzen du | | | |
| Komunikazioa sustatzen du. Umeei jolasaren inguruan galderak egiten dizkie | | | |
| Jolasak proposatzen ditu | | | |
| Espazioa eta materialak erabiltzen ditu (oihalak erabili, etxeak eraiki...) | | | |
| Besteei errua botatzen die | | | |
| Frustrazioa transmititzen du | | | |
| Jolasa saihesten du | | | |
| Adierazpen fasean duen esku hartzea | EZ DAGO | | |
| Saioan bizitakoa marrazkien, plastilinaren edo egurrezko blokeen bidez adierazteko aukera ematen du | | | |
| Haurrei zer egin duten galdetzen die | | | |
| Ikasleek gaitasunak eskuratzeko galderak egiten dizkie | | | |
| Parte hartu nahi ez duten ikasleak gonbidatzen ditu | | | |
| Hitzezko eta gorputzezko adierazpenen bidez komunikatzen da | | | |

| | | | |
|---|----------------|--|--|
| Arauak ezartzen ditu | | | |
| Irteerako erritualean duen esku hartzea | EZ DAGO | | |
| Umeak hasierako lasaitasunera itzultzen dira | | | |
| Saioan egin dena komentatzen du | | | |
| Ikasleen autonomia sustatzen du. Horiek materiala jasotzen dute | | | |
| Haurrei saioan egin dutenari buruz galdetzen die | | | |
| Saioa erritual batekin amaitzen da | | | |

2. Eranskina: Psikomotrizitate gela Covid-19 aurretik







3. Eranskina: Psikomotrizitate gela gaur egun





